

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BARXILERGO IKASTOLA	kodea:	
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	Gaztelania eta literatura I		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia, konpetentzia sozial eta zibikoa, arterako konpetentzia, konpetentzia motorra		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. -Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio-egoerari ganoraz aurre egiteko. 2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio-egoerari eta -helbururi ganoraz aurre egiteko.	EBALUAZIO IRIZPIDEAK: - Ahozko eta ikus-entzunezko testua – esparru akademikoko azalpen-testuak, bereziki– hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Curriculumeko edukiei buruz ahozko azalpenak egitea. - Ahozko harremanetan aktiboki eta gogoeta eginez parte hartzea, egoki argudiatuz. - Testu idatziak – esparru akademikoko azalpen-testuak bereziki – hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta

3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 4. Literatura-testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko. 5. Espainiar literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko, informazio-iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan. 6. Literatura-lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte-izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura-tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren cultura nortasuna eraikitzeke. 7. Euskal Autonomia Erkidegoko elebitasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko. 8. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko. 9. IKTak autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte- eta kultura-bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko. 10. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta	balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Hizkuntzalaritzaz, literaturaz eta egungo egoeraz testuak idaztea – esparru akademikoko azalpen testuak bereziki –, hainbat erabilera-eremutan baliatzeko, eta aldeaz aurretik prestatutako eskema bati jarraituz. - Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea, ezagutza soziolinguistikoak erabiliz. - Hizkuntzaren mailen gaineko ezagutzak identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatzerakoan eta norberaren jarduna arautzerakoan. - Euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzen den hizkuntza-terminologia komuna ezagutzea, eta hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan zuzen erabiltzea.
---	--

autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	
--	--

ARAZO EGOERA [arazo egoeraren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errelevanteenak agertuko dira]

- 1. UNITATEA: Hitz

Arazoa: Nola eratzen dira hitzak?

Testuingurua: Gaur egun etengabe erabiltzen ditugu hitzak gure eguneroko bizitzan. Ez bakarrik ahozkoan, baita idatzizkoan ere. Hala ere, ez dakigu nondik datozen hitzak ezta nola eratzen diren ere ez. Eraketa hau nola gertatzen den azaltzea da unitate honen helburua.

Azken ataza: taldeka, hitzen eraketa modu desberdinak identifikatu eta talde bakoitzak modu bat deskribatuko du. Prozesua ilustratzeko gaur egun erabiltzen diren hitzak bilatuko dituzte ikasleek, eta azalpenarekin batera padlet batean jarriko dituzte.

- 2. UNITATEA: Hitz motak

Arazoa: Hitz guztiak berdinak dira ala ezaugarri batzuen arabera sailkatzen ditugu? Sailkapen hori zeren arabera egiten da?

Testuingurua: Hitzak nondik datozen ikusi ondoren, nola sailkatu jakitea ere garrantzitsua da, ikasleek beraien egunerokoan irakurtzen dituzten testu mota guztiak eta hauen esanahia ulertzeko. Gainera, sailkapen hau inguruan ditugun edo hurbildu zaizkigun hizkuntzetara ere aplikagarria denez (frantsesa, ingelesa), gaur egungo mundu globalizatuko testuak (idatzizkoak zein ahozkoak) ulertzeko ezinbesteko tresna dira.

Azken ataza: taldeka hitz mota bat landuko dute ikasleek. Ondoren, gela guztiaren aurrean aurkezpen baten bitartez azalduko diote gela guztiari landutakoa. Aurkezpenaren bukaeran egiteko ariketa batzuk proposatu beharko dituzte, ikaskideek ulertu dutela konprobatzeko.

- 3. UNITATEA: literatura komunikazioa

Arazoa: Zer da literatura?

Testuingurua: literatura bazterreko ikasgai bezala uzten den gizartean, literaturak zertarako balio duen ikusi eta duen balioa emateko, lehenik eta behin, literaturaren barnen banatzen diren generoak ulertu behar dira eta bakoitzaren ezaugarriak ezagutu behar dira.

Azken ataza: ikasle bakoitzak berridazketa bat egingo du testu batetik abiatuta. Irakasleak testu mota desberdinak proposatuko ditu, testu mota desberdinak lantzeko.

- 4. UNITATEA: XI-XIV. mendeak

Arazoa: gaur egun gaztelaniaz ezagutzen dugun literatura nondik datozkigu?

Testuingurua: gaur egun irakurtzen dituzten testuak nondik datozen ikustea beharrezkoa da, literaturaren garapena nolakoa izan den ulertzeko eta beraien iruditeria nondik datorren ezagutzeko. Erabat indibidualizatuak gauden honetan, denak iruditeria komuna batetik datozela ohartuko dira ikasleak eta kolektiboki badirela ere ikusiko dute.

Azken ataza: Erdi Aroko literatura lan bat gaur eguneko hizkuntzara egokitzea.

- 5. UNITATEA: Sintaxia

Arazoa: Nola elkartzen dira hitzak beraien artean?

Testuingurua: Testuak egituratzeko hitzak nola eta zeren baitan elkartzen diren jakitea beharrezkoa da. Gero, ikasleek beraien testuak sortzeko eta egokiak izateko tresnak behar baitituzte.

Azken ataza: bakoitzak esaldi bat idatziko du classroomeko wikian, ondoren, esaldiak banatuko dira eta bakoitzak ikaskideren batek sortutako esaldiaren analisia egin beharko du.

- 6. UNITATEA: XV. mendea

Arazoa: Zergatik da XV mendea gaztelar nobelaren hasiera?

Testuingurua: gaur egun ikusten diren serieen gaiak berriak eta originalak direla uste dute ikasleek, baina ez da horrela. XV. Mendeko gaiak behin eta berriz agertzen dira literaturaren historian zehar. Lotura hau egitea eskatuko zaie ikasleei.

Azken ataza: *Celestina* liburuaren booktrailer bat sortu.

- 7. UNITATEA: Errenazimendua eta Cervantes

Arazoa: Zer da errenazimendua? Zergatik da On Kixote literatura unibertsalaren parte?

Testuingurua: Europako kulturen garrantzia handia eduki du errenazimenduak, kontinente zaharreko kultur oinarri batzuk finkaturik geratu zirenez gero. Oinarri horiek ezagutzea ezinbestekoa da gaur egun hain presente ditugun kanon estetikoak nondik datozen ulertzeko, harreman hori ulertzeko ezinestekoa izango da unitate hau.

Azken ataza: Taldeka, autore bat landuko dute eta klase guztiaren aurrean aurkeztuko dute.

- 8. UNITATEA: XVII. Mendea literaturan, Siglo de Oro delakoa

Arazoa: Zein dira XVII. mendeari Siglo de Oro deitzeko arrazoiak?

Testuingurua: Espainiar literaturaren garai emankorrenetako bat ezagutzea du helburu unitate honek, baita literaturak historian izan dituen funtzioetako batez ohartzea ere, erregimenaren aldeko obrak sortu baitziren batez ere. Gaur egun literatura kontakizun soilekin lotzen duten arren, ikasleek beste funtzio batzuk ere izan zituela ikusi behar dute.

Azken ataza: Ideia batzuen alde egiten duen gaur eguneko literatura lan bat bilatu banaka. Ondoren, klase guztiarekin komentatu eta XVII. Mendeko obren funtzioarekin konparatu.

- 9. UNITATEA: Testua eta testu motak.

Arazoa: Zein testu mota gai izango zinateke?

Testuingurua: Gaur egun argudiozko testuak dira gehien ikusten direnak prentsan, telebistan eta plataforma digitaletan. Hortik haragoko testuak badaudela ikusi behar dute ikasleek eta baita mota desberdineko testuak sortzeko gai direla ikusi ere.

Azken ataza: Gai komun batzuetatik bat aukeratu eta horren inguruko testua sortu. Edozein testu mota dela ere: narratiboa, argudiozkoa...

- 10. UNITATEA: Kazetaritza eta iragarki testuak.

Arazoa: Gai al zara egunkari bateko testu desberdinak identifikatzeko?

Testuingurua: Ikasleek geroz eta gutxiago irakurtzen dute egunkaria, ez bakarrik paperean, baita digitaletan ere. Nahiz eta paperean ez landu, egunkari digitalak erabiltzen ikastea garrantzitsua da, ikasleek beraien burua informatzen ikasteko.

Azken ataza: Taldeka iragarki bat sortzea, edozein euskarri digitaletan: kartela, bideoa etab.

- 11. UNITATEA: Aniztasun linguistikoa

Arazoa: Zein arrazoigatik aldatzen dira hizkuntzak eta zein hizkuntza daude iberiar penintsulan?

Testuingurua: EAEko ikasle askok gaztelania erabiltzen dute beraien egunerokotasunean, baina iberiar penintsulan zein hizkuntza dauden eta egon diren jakitea garrantzitsua da, baita hizkuntza hauek nondik datozen eta nola eta zergatik aldatu diren jakitea ere. Beraien errealitate lingustikotik beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera edukiko dute.

Azken ataza: taldeka, iberiar penintsulako hizkuntzei buruzko informazioa bilatu eta guztien artean classroomeko orri interaktibo bat osatu.

12. UNITATEA: XVIII. Mendea literaturan

Arazoa: Egon al zen ilustrazioarik Espainian?

Testuingurua: Gaur egungo eskolan transmititzen diren baloreen errepasatzeko eta hauek jatorria ezagutzeko parada da ilustrazioaren lanketa. Garai hartan sortu ziren gaur egun ere bizirik dirauten hainbat ideal, eta hauek balorea ikusiko dute ikasleek.

Azken ataza: Banaka testu bat irakurri eta ilustratua zergatik den arrazoitu, idatziz.

13. UNITATEA: XIX. Mendea literaturan

Arazoa: Zergatik esaten da XIX. Mendea gizarte modernoaren hastapena izan zela?

Testuingurua: Gaur egun ezagutzen dugu gizartea nondik datorren ikusteko nahitaezkoa da XIX mendearen lanketa eta autoreek diotena irakurtzea, garai hartako errealitatearen parte ezagutzeko eta sortutako gatazkak errekonozitzeko.

Azken ataza: Erromantizismoko eta errealismoko (edo naturalismoko) bi lan aukeratu eta konparatu.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

- 1. UNITATEA: Hitza

a) Hitza

b) Hitzen eraketa

- 2. UNITATEA: Hitz motak

a) Gramatika kategoriak

1- Izena

2- Izenondoa

3- Determinanteak eta izenordaina

i) Artikulua

ii) Pertsonala

iii) Posesiboa

iv) Demonstratiboa

v) Kuantifikatzailea

4- Aditza

5- Aditzondoa

6- Preposizioak

7- Konjuntzioak

- **3. UNITATEA:** literatura komunikazioa

- a) Literatur generoak
- b) Literatur baliabideak
- c) Literatur topikoak

- **4. UNITATEA:** XI-XIV. mendeak

- a) Lehen testu literarioak
- b) *El Cantar del Mio Cid*
- c) Prosaren jatorria
- d) Klereziako mesterra
- e) Don Juan Manuel

- **5. UNITATEA:** Sintaxia

- a) Enuntziatua eta enuntziatu motak
- b) Perpausa
- c) Funtzio sintaktikoak
- d) Perpaus motak
 - 1- Perpaus koordinatuak
 - 2- Perpaus "yuxtapuesta"
 - 3- Subordinazio perpausak

- **6. UNITATEA:** XV. mendea

- a) Poesia
- b) Prosa
 - 1- *La Celestina*

- **7. UNITATEA:** Errenazimendua eta Cervantes

- a) Petrarca eta Errenazimendua
- b) Poesia
- c) Antzerkia
- d) Eleberria
 - 1- Cervantes eta *On Kixote*

- **8. UNITATEA:** XVII. Mendea literaturan, Siglo de Oro delakoa

- a) Poesia
- b) Prosa
- c) Antzerkia

- **9. UNITATEA:** Testua eta testu motak.

- a) Narrazio testuak
- b) Deskribapen testuak
- c) Argudio testuak
- d) Azalpen testuak

- **10. UNITATEA:** Kazetaritza eta iragarki testuak.

- a) Komunikabideak eta egunkaria
- b) Genero informatiboak
- c) Iritzi generoa
- d) Iragarki testuak

- **11. UNITATEA:** Aniztasun linguistikoa

- a) Aniztasun linguistikoa
- b) Iberiar penintsulako hizkuntzak

- **12. UNITATEA:** XVIII. Mendea literaturan

- a) Poesia neoklasikoa
- b) Antzerki neoklasikoa
- c) Pentsamendua eta saiakera

- **13. UNITATEA:** XIX. Mendea literaturan

- a) Erromantizismoa
 - Ezaugarriak
 - Autoreak
- b) Errealismoa eta naturalismoa
 - Errealismoaren ezaugarriak
 - Naturalismoaren ezaugarriak
 - Autoreak

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA:

1. MULTZOA. Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunak.
2. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.
3. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: irakurtzea eta idaztea.
4. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta.
5. MULTZOA. Literatura-diskurtsoa.
6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.

- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

Testu liburura: *Lengua castellana y Literatura* 1. ANAYA argitaletxea.

Apunteak, fotokopiak, prentsako artikulak eta hiztegia.

Literaturako hainbat testu eta obra oso.

Ikus-entzunezko material egokitua: pelikulak etab.

IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera asko, edukiak pdf-n igoko dira. Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, gelako aurkezpenak, bideoak, material gehigarria eta abar.) Ikasleen lanerako programa kolaboratiboak erabiliko dira (Drive) eta classroomeko baliabideak (wikiak...). Ebaluaketarako classroomeko hainbat tresna erabiliko dira (galdetegiak...).

Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs) eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) egin beharko dute ikasleek. Mapa kontzeptualak egiteko baliabideak ere erabiliko dira (Canva, Lucidchart esaterako).

Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak etabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

IKASLEEN TALDEKATZEA:

Egunerokoan ikasleek banaka jardungo dute, irakasleak emandako azalpenak ulertu beharko dituzte, eta ondoren ariketak egin. Hala ere hainbat ariketa taldeka eta banaka ere egingo dituzte, horrela talde lana eta kooperatibismoa bultzatzeko, beti ere ariketaren izaera kontuan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA:

- Egunerokoan ikasgela erabiliko da lanerako. Talde lanak burutzeko orduan, aldiz, IKT gela ere erabiliko da behar izanez gero. Ariketa osagarriak egiterakoan beste hainbat gela ere erabiliko dira, hala nola, aretoa.
- Astean hiru saio edukiko du gela bakoitzak. Urtea ebaluazioko eta unitateka antolaturik egongo da. Halaber, edukiak lantzeko: hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA:

- Ikasleen arreta bereganatzen eta dituzten aurre-ezagutzak aktibatzen saiatuko da unitatean sakontzen hasi baino lehen.
- Material desberdinetan oinarrituta (testu liburuak, testuak, bideoak...), azalduko ditu unitate didaktikoak. Testuak lantzeko garaian, hasieran testu iruzkinak bideratuta emango die ikasleei. Hainbat euskarri mota erabiliko ditu horretarako (ppt, prezi...).
- Emandakoa aplikazio praktikoekin harremanetan jarriko du, eta gaiak errealitatearekin lotuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA:

- Ikasleak azalpena jarraitu eta ulertu behar du, horretarako ariketak eginez. Horretaz gain, ikasleak agindutako lanak eta irakurketak egin behar ditu eskatzen zaizkionerako.
- Edozein duda izanez gero, irakasleari galdetu beharko diote, beraien ikaskuntza prozesua ahalik eta osoena izan dadin.
- Indibidualki zein taldean egingo dute lan, lan taldean aritzeko gaitasuna garatzeko.
- Edukiak barneratzeko teknika egokienak martxan jarri beharko dituzte.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio bakoitzean azterketa bat egingo da gutxienez eta beharraren arabera beste kontrolaren bat egingo da. Egunero egindako ariketak eta talde lanak ere pisua edukiko dute notan, baita irakurri beharreko obrak ere. Gainera, noizean behin Alexia Classroomen bitartez galdetegi batzuk burutuko dituzte, edukiak barneratzen ari direla konprobatzeko.	Egiten diren kontrolek notaren gehiengoa balio dute %80 . Eguneroko ariketetan, ikasleei aldeztu aurretik jakinen gainean jarriko zaie zeintzuk izango dira kalifikatuak %10. Irakurgaiaren lanketak %10 balio izango da. Klaseetan jarrera positiboa eta aktiboa kontuan hartuko da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]	
Ebaluaketa bakoitzak bere errehabilitazioa izango du. Lehenengo deialdirako beraz, gaitzitu ez dituzten ebaluaketak soilik egingo dituzte. Lehenengo deialdian gaitzitzen ez dutena, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie bigarren deialdirako. Kurtsoa batez besteko nota igo nahi dutenek ekainean egin beharko dute kurtso osoko azterketa.	

OHARRAK

--

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo ikastola	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila:	1
arloa/irakasgaia:	Euskal Hizkuntza eta Literatura		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak	1.Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko. 2.Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko eta idatzizko testuak eta ikus-entzunezko analogiakoak eta digitalak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei. 3.Hizkuntzen erabilera araei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza zuhertasunez eta autonomiaz erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrak egiteko. 4.Literatura testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita, eta horren bidez, mundua ulertzea, literatura ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa balioestea, norberaren kultura nortasuna eraikitzea eta sentsibiltate estetikoa garatzea. 5.Gure gizartearen hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.		
irakasleak:	Aitzpea Aizpurua	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio egoerari ganoraz aurre egiteko.	-Ikasleak badakien gai nagusia eta bigarren mailakoak bereizten. Laburpen egokiak egiten dituen. Erregistro egokia erabiltzen duen. -Badakien bere iritzia ematen arrazoibideetan oinarrituta. Argia eta koherentea den. -Osagai implizituak ondorioztatu eta baliatzen dituen. Komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatzen dituen. -Ea errespetatzen dituen zuzentasun arauak. Saihesten

2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio egoerari eta helbururi ganoraz aurre egiteko. 3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 4. Literatura testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko. 5. Euskal literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura testuak hobeto ulertzeko, informazio iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan. 6. Literatura lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren kultura nortasuna eraikitzeke. 7. Euskal Autonomia Erkidegoko eleaniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko eta euskara erabiltzeko. 8. Eleaniztasuna nahiz kultura aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko. 9. IKT autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte eta kultura bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko. 10. Norberaren ikaskuntza prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	ote dituen ukipen-egoeragatik sortutako kalkoak. -Gelan landutako literatura-mugimenduetako egile eta lanak ezagutzen dituen, eta dagokien testuinguru historiko eta kulturalean interpretatzen badakien. -Baliatu dituen informazio-iturrietan lortutakoaz erabilera sortzailea egiten duen, komeni zaiona bakarrik erabiliz, iturri desberdinetako informazioak elkarren artean konparatu eta osatuz, eta besterik gabeko kopiatze soila egin gabe. -Sortzen dituen testuek betetzen dituzten agindutako gutxienekoak (komunikazio egoerari egokitzea, genero ezaugarriak, komunikazio asmoa betetzea...)
---	---

ARAZO EGOERA

• 1. Testua zer den Azken ataza: Apunteak hartzea • 2. Zer da? Azken ataza: Gramatikazko oinarritzko kontzeptuen definizioak egitea • 3. Zer gertatu zen? Azken ataza: Eskola esparruko narrazioak egitea. • 4. Ba al dakizu? Azken ataza: XVII. mendeko euskal literaturaren atal bat azaltzea gelari • 5. Solasean Azken ataza: Elkarriketak idaztea zehar estiloan eta estilo zuzenean. • 6. Nor izan liteke? Azken ataza: Literatur testu itsu bat norena izan litekeen frogatzea.	
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. Ebaluazioa

Diskurtsoen ugaritasuna

Komunikazio-egoerako elementuek diskurtsoa nola baldintzatzen duten aztertzea.
Azalpen testuak (definizioa). Narraziozko azalpena.

Literatura diskurtsoa

Ahozko literatura. Herri lirika.
XVIko testuak.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Hizkuntza unitateekin zerikusia duten kontzeptuak sistematizatzea, eta erabiltzea testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
Erlatibozko perpausak eta p. osagarriak

2. Ebaluazioa

Diskurtsoen ugaritasuna

Azalpen testua.
Elkarriketazko azalpena.

Literatura diskurtsoa

XVIIko testuak
Herri-antzerkia. XVIIIko antzerki idatzia.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Modalizazioa, deixia, erregistroak.
Mendeko perpausak: helburuzkoak, kausazkoak, kontzesiboak, konparatiboak

Hizkuntzaren dimentsio soziala

Inguruko hizkuntzekiko ukipen-fenomenoak

3. Ebaluzioa

Diskurtsoen ugaritasuna

Argudio testua.

Literatura diskurtsoa

XX. mende hasiera arteko poesia.

Hizkuntzari buruzko gogoeta

Antolatzaileak.

Hizkuntzaren dimentsio soziala

Inguruko hizkuntzen ezaugarriak euskararekin alderatzea.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

Edukiak multzo hauetan antolatuta daude:

- Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunei buruzkoak
- Diskurtsoen aniztasunari buruzkoak: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea
- Diskurtsoen aniztasunari buruzkoak: irakurtzea eta idaztea
- Hizkuntzari buruzko gogoeta
- Literatura-diskurtsoari buruzkoak
- Hizkuntzaren alderdi sozialari buruzkoak

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gaingintzeko ekintzak

BALIABIDEAK

Ez dago testu-libururik. Testuak eguneroko testu errealak izango dira (publizitatezkoak, egunkarietan ageri direnak, internetez lor daitezkeenak).

Antzerki, bertso eta poesia hautatuak banatuko dira.

Alexia Classroom plataforma

Ikus-entzunezko materiala.

TALDEKATZEAK

Talde txikiak (2-3 lagun)

Talde handiak (5-8 lagun)

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA

Hiru gela dira, **33-33 eta 34** ikaslekoak. Astean hiru saio dira. Oro har ez da gelatik atera behar izaten, beharrezko guztia bertan dago eta.

COVID dela-eta, ikasleen artean ahalik eta tarte gehien izan dezaten saiatzen gara.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

-Beharrezko azalpenak ematea. Ez da testu-libururik erabiliko.

-Ahozko nahiz idatzizko hainbat iturritatik testuak lortzea (egunkariak, irratia, telebistako iragarkiak...) gelan entzun/ikusi/irakurri eta aztertzea. Azterketa horietatik abiatuz, ereduak eman eta ikasleei berdintsuak eginaraztea.

-Ikasleen lanak zuzentzea, zuzenketari jarraituz ikasleak egindako lana hobeto egiteko jarraibideak izan ditzan.

IKASLEEN EGINKIZUNA

-Irakaslearen azalpenak aktiboki jarraitzea.

-Agintzen zaizkion bakarkako lanak bere kabuz egitea (ahozko nahiz idatzizkoak), horretarako behar duen informazioa bilatuz. Lan horiek arduraz eta agintzen denerako eginak izatea.

-Talde txikitan egin beharreko lanetan arduraz aritzea, ekarpenak egiteko. Lan osoaren erantzule delako jarrera izatea.

-Talde handitan egin beharrekoetan ere ekarpenak egitea, lan osoaren erantzule delako jarreraz.

-Egindako lanetakoren bat hobeto egin dezakeenetan irakasleak esandakoari jarraituz, hura berriro egitea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikasleak egin eta irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrol txikiren bat ere izan daitekeen, lan bakoitzaren balio bera izango duena azken emaitzan. Ebaluazioko notak gorde egiten dira 1. deialdira arte. 2. deialdian, gai osoaren azterketa egin beharko da.	Ikasleak egiten dituen lan guztien batez bestekoak osatuko du ebaluazio bakoitzeko notaren laurdena (%25). Gainerako hiru laurdenak azterketan ateratako kalifikazioa izango dira (%75). Ikasturte amaieran izango du ikasleak nota igotzeko aukera, urte osoko gaiei buruzko azterketa baten bidez. Azken notaren biribiltzea irakasleak xedatuko du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan. Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira. 1. eta 2. deialdietako azterketen bidez gaindi daiteke ikasturtea.	

OHARRAK

Itxialdian geratu beharra gertatuz gero, hemen aipatzen diren hainbat gauza (taldekatzeak, baliabideak, ebaluazio tresnak, edukien sekuentzia...) alda litezke. Kasuan kasuan adieraziko zaie ikasleei egoera berrian egin den aldaketa eta horren aurrean berek egin behar dutena.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379	2021-22	
ARLOA	INGELESA						DATA	2021.09.01	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		
							BATX 1	x	BATX 2

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

- 1.– Hainbat erabilera-eremutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea.
- 2.– Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea.
- 3.– Atzerriko hizkuntzaren oinarritzko ezaugarri sozialak eta kulturalak ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko jarrera positiboa eta begirunea erakusteko.
- 4.– Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez.
- 5.– Hizkuntzak, hainbat jatorri, hizkuntza eta kulturatako pertsonen elkar komunikatzeko eta ulertzeko tresna direla positiboki balioestea.
- 6.– Atzerriko hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalen gainean gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, ahozko testuak eta testu idatziak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- 7.– Arte- eta literatura-testuak gero eta modu autonomoagoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.
- 8.– Teknologia eta informazio-iturriak autonomiarekin, espiritu kritikoarekin eta jarrera etikoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko.
- 9.– Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio ezagutzak eta estrategiak erabiltzea,, hizkuntzen arteko transferentzia bultzatzeko eta ikasteko autonomia garatzeko.



2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
10	1 Making Contact	10	4 Urban Jungle	10	7 Go for Gold
10	2 The Techno Life	10	5 Soul Mates	10	8 Food for Thought
10	3 Live and Learn	10	6 Money Matters	saio	
saio		saio			

Horiek dira landuko diren 8 unitate didaktikoak. Bakoitzean 5 multzo jorratuko dira:

1. Listening and Speaking. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea.

2. Reading and Writing. Diskurtsoen ugaritasuna: irakurtzea eta idaztea.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Reading	1. A Magazine Article 2. An Online Forum 3. A Biography	4. A Blog 5. A Short Story 6. Social Media Posts	7. A Magazine Article 8. A Magazine Article
Writing	1. An Informal E-mail 2. A For and Against Essay 3. A Report of an Event	4. An Opinion Essay 5. A Narrative 6. An Informative Essay	7. A Biography 8. A Formal Letter or E-mail

3. Use of English: Grammar and Vocabulary, hots, hizkuntzari buruzko gogoeta.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Grammar	1. Present Simple and Present Continuous. Past Simple, Past Continuous and Past Perfect Simple. Present Perfect Simple / Continuous. 2. Future Simple, Be going to, Present Cont. as Future. Future Continuous, Future Perfect Simple. 3. Relative Clauses.	4. Modal Verbs. 5. Conditional and Time Clauses. 6. The Passive and the Causative.	7. Reported Speech 8. Special Structures. Grammar Review.
Vocabulary	1. Communication. Noun Suffixes. Adjective Suffixes. 2. Technology. Adjectives and Prepositions. Collocations 3. Education. Phrasal Verbs, Adjective Suffixes.	4. Cities. Phrasal Verbs. Negative Prefixes. 5. Relationships. British/US English. Verbs and Prepositions. 6. The economy. Gerunds and Inf. Common Expressions	7. Sport. Compound Nouns. Collocations. 8. Food. Idiomatic Expressions. Phrasal Verbs.

4. Literatura-diskurtsoa. 2. eta 3. hiruhilabeteetan errefortzatu egingo da, ikasleek ingelesez sortutako obra literario egokitu bat irakurriko dute-eta.

5. Civilization. Hizkuntzaren dimentsio soziala.



3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Landuko diren unitate didaktiko guztiek egitura berbera dute:

- Sarrera-motibazio iharduerak
- Ikasketa prozesuaren garapenerako iharduerak: Introductory Vocabulary and Listening / Reading / Grammar / more Vocabulary, Listening and Speaking skills linked to the topic / Writing / Revision and extension of Vocabulary / and Life skills.
- Ikas prozesua norberak garatzeko edo eta norberaren ebaluaziorako ariketak: Workbook exercises.

Irakasleak material digitala erabiliko du gelan euskarri bezala. Ikasgelak horretarako egokituta daude, proiektorea bertan izanik. Ikasleak etxean ere eskuragarri izango du material digital gehigarria. Ikasleek talde handian, txikian (2-4 ikasle) nahiz banaka egingo dute lan.

4 BALIABIDEAK

Eguneroko lanerako **Advantage 1** (Burlington) metodoa erabiltzen dugu. Metodo honek material inprimatua eta digitala konbinatzen ditu, eta hau bereziki efikaza bihurtu zen 2019-20 ikasturtearen bukaeratik, pandemiak bultzatuta etxean lan egiteko modu egokia izanik.

- Gelan liburu digitalak (*Student's Book & Workbook*) proiektatzen dira pantallan. Ikasleak paperean daukan guztiaren bertsio digitala dira. Horrek presentazio teorikoak, ariketa guztien zuzenketak, entzuketak eta beste gehigarri asko barneratzen ditu, hala nola:

Vocabulary presentations & practice

Grammar tutor & practice

Integrated videos & slideshows (communication videos, culture videos, info videos, life skills...)

- Ikasleek gelan *Student's Book* eta *Workbook* liburu fisikoak izango dizutze. Pandemia konfinamendua geroztik, material honen beraren bertsio digitala zabaldu zuen Burlington argitaletxeak ikasle guztientzat. Honek asko erreztuko du ikasle kofinatuen egoera, klasera huts egingo duten ikasleena edota errepaso indibiduala behar dutenena...

Bestalde, gainera, Interactive Student delako baliabide digitala erabil dezakete, gelako lana osatuz. Honoko tresnak dira erabilgarri:

Flipped Classroom: klasean azalduko den teoria (Vocabulary & Grammar sailak) aurrez ikusteko aukera ematen die, edota klasean azaldu ondoren etxean errepasatzeko.

Extra Practice: sendotze ariketa gehigarriak (vocabulary practice, wordlists and activities & grammar practice)

Extra Resources: listening practice, Grammar Bank (gramatika laburpen sintesiak) & videos.

Interactive Student, <https://webbook.burlingtonbooks.com> weborrian dute eskuragarri (ikasturte hasieran sartutako kodearen bidez bakarrik).

- Irakasleari ere LMS (Learning Management System) edo ikasleen jarraipena egiteko aukera ematen dio Advantagek. Konfinamendu osoko egoeratan erabilgarri bilaka daiteke.

Bestelako zenbait material ere aipatu behar ditugu: Oiertzo English Mintegian sortutako apunte-ariaketa bilduma (**Photocopy Book 1**), **bi irakurgai** (ikasleen hizkuntza mailara egokitutako ingeles literaturako bi obra: *All About the Cinema* eta *A Foreigner in Britain*), **filmeak** (bi urtean), **abestiak** eta beste.

Amaitzeko, **Alexia Classroom** plataforman material osagarrien atal handi bat eskura izango dute, hots, Advantage 1 izan ezik beste guztia. Bertan txertatua, Meet erabiliko da konfinatutako ikasleek klase saioak etxetik jarraitu ahal izateko.



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
----------	---

Ebaluazio irizpideak:

1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea.
2. Ahozko aurkezpenak egitea.
3. Ahozko harremanetan parte hartzea.
4. Testu idatzi konplexuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea.
5. Plangintza bati jarraituz testu idatziak ekoiztea.
6. Hizkuntza-ezagutzak gogoeta eginez eta modu autonomoan identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatu eta ekoiztean.
7. Literatura, gozatzeko eta ikasteko erabiltzea.
8. Hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan, eraginkortasunez eta espiritu kritikoarekin erabiltzea.
9. Hizkuntz atzeritarra ikasketa-tresna gisa erabiltzea eta hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonekin komunikatzeko ere bai.
10. Beste kulturetako elementu sozialak, linguistikoak eta kulturalak identifikatzea, errespetatzea, eta propioekin lotzea.
11. Hizkuntza guztietan burututako ikasprozesuen gainean gogoeta egitea.

Bildumako ebaluazioan erabiliko diren tresnak anitzak izango dira:

- Hiruhilabete bukaerako azterketa
- Etxerako eguneroko lan idatziak edo ahozkoak: Workbookeko ariketak, Student's Bookeko ariketak edo bestelakoak. Gramatika iharduerak izan daitezke, idazlanak, informazio bilaketa, ahozkoen prestaketa... Etxerako lanak egin gabe etortzea penalizatu egingo da.
- Irakurritako obra literarioari buruzko azterketatxoa (2. eta 3. hiruhilabetean)
- Gelako lan-produkzioa eta jarrera.

Kalifikazio irizpideak:

Ebaluazioa etengabea eta jarraia da. Horregatik lehen aipatutako tresna guztiak erabiliko dira. Ez da azterketen erreperazioz izango: hurrengo azterketak aurrekoa gainditzeko aukera emango du.

Ikasturte amaierako notan, aurreko ebaluazioetan lortutako notak kontuan hartuko dira, eta batez bestekoari erreparatuko zaio, kurtsoan zehar izandako lan-ekoizpena eta jarrera ahaztu gabe. Beraz, 3. ebaluazioko nota ezin da automatikoki bukaerako notarekin identifikatu. Irakaslearen esku geratzen da kurtso amaierako batez besteko notaren xedapena.

Ikasturteko nota igo nahi izanez gero (aprobatua izanda, noski), 1. deialdiko azterketa finalera aurkezteko aukera du nahi duenak.

6**BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA**

Bildumako ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da. 1. eta 2. trimestreko azterketan erreperazioz ez da izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du. Horregatik, azterketan sartuko diren edukinak ebaluazioz ebaluazio pilatzen doaz, eta 3. ebaluaziokoa azterketa global bat da.

3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez duenak, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko du, hau ere kurtso osokoa izanik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Hezkuntzako Ikuskaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Inspección de Educación

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	FILOSOFIA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak			
irakasleak:	Josune Etxeberria Etxeberria	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako kompetentziak

1. HITZEZKO ETA HITZIK GABEKO KOMUNIKAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO KONPETENTZIA : komunikazio egoki eta eraginkorrak egiten ikastea egoera pertsonal, sozial eta akademikoan. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, sortzaile eta eraginkorrez erabiltzea.
2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA: lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza lantzea, ikasitakoa beste egoera batzuetara transferitzeko gaitasuna izateko. Pentsamendu analitiko, kritiko eta sortzailea landu: informazioa ulertuz, ikasiz, interpretatuz, ebaluatuz, hautatuz eta sortuz.
3. ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA: giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak betetzea; norberaren pentsamenduak, sentimenduak eta nahiak modu asertiboan adieraziz eta aldi berean besteenak adi entzutea eta kontuan hartzea. Taldean lan egiten ikastea nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneke lanetan lankidetzan arituz.
4. EKIMENERAKO ETA ESPIRITU EKINTZAILERAKO KONPETENTZIA: Ideiak eta proiektuak sortzea eta nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea. Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.
5. NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA: Norberaren sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen inguruan gogoeta egitea eta horien gainean egiten den balorazioari erreparatuta haiek sendotzea edo doitzea.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Arazo filosofikoak testuen bitartez aztertzea . 2. Pentsatzeko estilo berezia garatzea eta argi eta modu koherentean bai ahoz eta bai idatziz ere jakinarazteko gaitasuna izatea. 3. Gure gizarteko jakintza, jokabide eta balio desberdinak hautematea eta horien inguruan gogoeta kritikoa egitea. 4. Adimenezko lanerako oinarrizkoak diren prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea, zuzeneko behaketa egitea, alderatzea, aztertzea, informazioaren laburpena eta ebaluazio kritikoa egitea, arazoak formulatu eta ebatzeko beharrezkoa den adimenezko zorroztasuna balioetsiz. 5. Gizartean arraza, sexua eta sinesmenak direla eta egiten diren desberdintasun eta bereizkeriak justifikatzeko edozein saiakeraren aurrean jarrera kritikoa izatea.	EBALUAZIO IRIZPIDEAK: 1. Testu filosofiko baten zentzua bere testuinguru historiko, sozial eta kulturean kokatzea, eta norberaren hitzez eta argudioz arrazoitzea testuaren zentzua. 1.1. Ea hautematen dituen testuak planteatzen dituen problemak eta ideiak. 1.2. Ea kokatzen duen testua dagokion esparruan. 1.3. Ea lotzen dituen testua eta haren ingurune historikoa, kulturala eta politikoa. 1.4. Ea bere hitzez azaltzen duen testuaren esanahia. 2. Beste filosofo batzuen pentsamoldearekin konparatuta iruzkintzea testu baten edukia, eta haren ideia nagusiak laburtzea. Horretarako, testuan erabilitako kontzeptu eta termino espezifikoak aztertzea (tesia, argumentazioa eta ondorioak) eta iruzkin kritiko pertsonala egitea. 2.1. Ea definitzen dakien erabilitako terminoen esanahia. 2.2. Ea laburtzen dituen testuaren alderdi nagusiak. 2.3. Ea egiten duen testuaren iruzkin kritikorik. 2.4. Ea bere ideiak arrazoitzen dituen. 3. Testu filosofiko bat ikuspegi kritikoz iruzkintzea eta juzkatzea, haren ezaugarri nagusiak hautematea eta beste autore eta filosofia-korronteekiko azaltzen dituen diferentziak identifikatzea; halaber, testu horrek gaur egungo munduan zer-nolako eragina izan duen balioestea. 3.1. Ea deskribatzen dituen testuaren ezaugarri nagusiak. 3.2. Ea ezartzen dituen autore eta teorien arteko antzekotasunak eta diferentziak. 3.3. Ea aitortzen duen autoreen eta teorien garrantzia eta ea balioesten duen egungo munduan izan duten eragina. 4. Hainbat informazio-iturri (testuak, gidaliburuak, hiztegiak, Internet, etab.) baliatzea datu adierazgarriak edo egokiak hautatzeko, eta iturri horiek behar bezala erabiltzeko behar den informazio egokia hautatzea. 4.1. Ea autonomiaz baliatzen dituen informazio-iturriak. 4.2. Ea hautatzen duen informazio esanguratsua. 4.3. Ea antolatzen eta sistematizatzen duen informazioa, hura ikuspegi kritikoz iragaziz. 4.4. Ea eskemarik eta kontzeptu-maparik egiten duen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. ebaluazioa: 27 ordu

0. Irakasgaiaren aurkezpena (ordu 1)
1. **Jakintza filosofikoa**: jatorria, zentzua, beharra eta historia. (7 ordu)
2. **Ezagutza**: teoriak, egia, mugak. (6 ordu)
3. **Ezagutza zientifikoa**; metodo zientifikoak; mugak; zientzia, teknologia eta gizartea. (7 ordu)
4. **Errealitatearen azalpen metafisikoa**. (6 ordu)

2. ebaluazioa: 28 ordu

5. **Mundu ikuskerak** eta naturaren filosofia. (7 ordu)
6. **Natura eta kultura** gizakiarengan. (7 ordu)
7. **Gizakiari eta bizitzaren zentzuari** buruzko **gogoeta** filosofikoa. (6 ordu)
8. **Arrazoimen praktikoa**: etika; teoria etikoak. (7 ordu)

3. ebaluazioa: 28 ordu

9. **Estatuaren oinarri filosofikoak**. (7 ordu)
10. **Estetika** filosofikoa eta gaitasun sinbolikoa. (6 ordu)
11. Komunikazioa eta **argudiatze logikoa**. (6 ordu)
12. **Filosofia eta enpresa**. Lan eta ekonomia alorreko etika. (7 ordu)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

METODOLOGIA

- Bakoitzak dakienetik eta denon artean dakiguna bilduz abiatuko gara.
- Irakaslearen azalpenak entzun eta edukien irakurketa, azpimarratze eta laburpen jarduerak egingo dira.
- Hausnartzeko jarduerak egingo dira, banaka naiz taldeka.
- Etabaidatzeko gaiak planteatuko dira, errespetuzko jarrera izaten ikasteko: norberaren iritzia eman, besteena entzun.
- Filmaren bat ikusiko dugu gogoeta sustatzeko helburuarekin.
- Testu iruzkinak egingo dira.
- ikaslearen parte hartze aktiboa sustatu eta baloratuko da.
- Ikasleek talde lanak egin eta aurkeztuko dituzte.

BALIABIDEAK

- Giltza edebé argitaletxeko testu liburua: Filosofia 1
- **IKT-ei dagokionean**: Giltza edebé argitaletxeko liburu digitalaz baliatuko da irakaslea edukien azalpenerako.
- Alexia Classroom izango da hainbat jarduera bideratzeko ikasgela birtuala.
- Informazioa biltzeko web orriak, Youtube, bilatzaileak, filmak ... erabiliko dituzte ikasleek.
- Pandemia egoeran, Alexian txertatuta, Meet komunikazio baliabidea erabiliko da, saioak jarraitu ahal izateko etxetik

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio irizpideak: 1. AZTERKETAK: - Oinarrizko ezagutzak neurtuko dira. Ebaluazioro azterketa bat egingo da. - Iruzkina: Testua ulertzea, bertan agertzen diren kontzeptuak azaltzea eta ikuspuntu filosofikoa koherentziaz garatzea neurtuko da. 2. IKASGELAKO LANAK ETA TALDE LANAK -Ikasgelan egiten den lana neurtuko da: interesa, ulertzea, parte hartze aktiboa, gelako dinamika erraztea/oztopatzea eta eskatutako lanak egitea eta garaiz entregatzea. -Talde lanak egin eta ikasgelan aurkeztea. -Besteen iritzien, jarrera filosofikoen edo sinesmenen aniztasuna errespetatzea, eta hori guztia norberaren ikuspuntuak aberasteko, argitzeko eta probatzeko modutzat hartzea. 3. JARRERA: gelako dinamika erraztu /oztopatzen duen, parte hartzea, interesa,... neurtuko dira.	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: - Azterketa: notaren %70 - Klaseko jarrera eta interesa: %10 - Egindako lana: eskemak, jarduerak, koadernoan idatzita: %20 Ebaluazioa gainditzeko, azterketan, gutxienez 3,5 atera behar da 7tik
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
BERRESKURAPEN SISTEMA - Azterketa gainditu ez duten ikasleei Kontzeptuak eta ideiak ulertzeko behar dituzten azalpenak jolas garaietan emango zaizkie (eskatzen baldin badute) - Errekuperatzeko azterketa egingo dute. - Nota igotzeko aukera izango dute berreskurapenetan. - Ohikoan eta ezohikoan, ikasleek gainditu gabe dituzten zatiak bakarrik berreskuratu behar dituzte.	

OHARRAK

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	LATINA I		
osatutako arloak/irakasgaiak	----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Latinezko testu laburrak itzuli, ulertu eta iruzkintzea, azkerketa morfosintaktikoa eginda eta modu kritikoan eta ulertuz irakurrita, antzinako Erromako gizartea eta kultura ezagutzeko eta interpretatzeko. 2. Eguneroko hizkuntzan eta terminologia zientifikoan nahiz teknikoan ageri den latindar lexikoa identifikatzea eta balioestea, latindar	1. Gero eta zailtasun handiagoko testuak aztertzea, itzultzea eta iruzkintzea. 2. Esaldi soil eta errazen erretrobertsio-jarduerak egitea, eta, horretan, latinaren berezko egiturak erabiltzea. 3. Bere hizkuntzan elementu lexiko latindarrak identifikatzeko gai izatea. 4. Esaldi eta testu latindarretan oinarriko elementu morfologikoak eta hitz arruntak identifikatzea eta

etimoak, aurrizkiak eta atzizkiak identifikatuz, hiztegia aberasteko, eta irakurritakoaren ulermena, mintzamina nahiz idazmina hobetzeko. 3. Latinaren oinarri eta egitura linguistikoak ezagutzea, zuzen erabiltzea eta ikasleen hizkuntzetakoekin konparatzea, latinezko testuak aztertu, itzuli eta interpretatzeko orduan haiek aplikatzeko, norberaren hizkuntza sakonago ezagutzeko, eta besteak errazago ikasteko. 4. Literatura-genero latindarretako testuak eta lanak aztertzeko eta modu kritikoan iruzkintzea, kontuan hartuz iturri primarioak erabili behar direla informazioa eskuratzeko, erromatar mundua hobeto ezagutu eta ulertzeko, eta haren kultura-ondarea aitortu eta balioesteko. 5. Erromatar kulturaren ekarpen nagusiak identifikatzea eta modu kritikoan aztertzeko, mendebaldeko zibilizazioaren ezaugarritzat joz, hartara geure historia eta kultura hobeto ulertzeko, eta ondare hori zaintzeko. 6. IKTak erabiltzea, autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan, antzinako Erromaren historiako eta kulturako hainbat alderdiri buruzko informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzeko. 7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.	aztertzeko, eta horretan, latinaren eta dakizkien beste hizkuntza batzuen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea. 5. Erromaren sorrera eta bilakaera gertatu zireneko marko geografiko eta historikoa identifikatzen eta deskribatzen jakitea. 6. Hispaniaren erromanizazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak jakitea. 7. Erromako oinarritzko antolaera politiko eta soziala ezagutzea. 8. Latindar mitologiaren eta erlijioaren ezaugarriak jakitea, eta horretan, haien eta gaur egungo mito eta erlijioen arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea. 9. Erromatar Zuzenbidearen oinarri nagusiak ezagutzea, eta Erromatar Zuzenbideak gaur egungo zuzenbidean zer-nolako eragina izan duen azaltzea. 10. Informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoan erabiltzea. 11. Hizkuntzak ikasteen tartean diren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, eta horretan, bere gaitasunetan konfiantza izatea.
---	--

ARAZO EGOERA

1. unitatea: Erromaren sorrera

- **Arazoa:** Noiz eta nola sortu zen Erroma? Nolakoa zen hitz egiten zuten hizkuntza?
- **Testuingurua:** Erromaren sorrera oso erlazionatuta dago latinarekin; beraz, ezinbestekoa da ikasleek hori ongi ezagutzea. Bestalde, latina ikasten hasi aurretik, hizkuntza honen ezaugarri eta berezitasunak ezagutu behar dira.
- **Azken ataza:** Erromaren sorrerari buruzko eta latinaren ezaugarri orokorreki buruzko ikuspegi orokorra izatea eta hori azaltzeko gai izatea.

2. unitatea: Erromatarren aurreko Hispania

- **Arazoa:** Nolakoa zen Iberiar penintsula erromatarren aurretik? Zein bizi zen bertan?
- **Testuingurua:** Latina ezagutzeko Erromaren historia jakitea beharrezkoa da. Horregatik, pixkanaka Iberiar penintsula nolakoa zen ikusiko dugu eta, aldi berean, latinaren ezagutza lehen pausoak emango ditugu.
- **Azken ataza:** Erromatarrek Hispaniara iritsi baino lehen Iberiar penintsula nolakoa zen ezagutzea eta latinezko esaldi sinpleen lehen itzulpenak egiten hastea.

3. unitatea: Errepublika erromatarra

- **Arazoa:** Nola zegoen errepublika erromatarra antolatura?
- **Testuingurua:** Itzuli behar ditugun testu askok Erromaren antolaketa sozial eta politikoari egiten diete erreferentzia. Hortaz, latinaren ezagutza aurrera goazen aldi berean, errepublika nola antolatuta zegoen jakitea oso garrantzitsua da.
- **Azken ataza:** Errepublika erromatarren antolakuntzaren ezaugarri nagusiak aipatzeko gai izatea eta latinez idatzitako testu pixka bat konplexuagoak itzultzea.

4. unitatea: Erromatar inperioa

- **Arazoa:** Nola lortu zuen Erromak hainbeste lurralde bereganatzea?
- **Testuingurua:** Testuek etengabe hitz egiten dute erromatar inperioaz. Hortaz, oso garrantzitsua da bere historia, antolakuntza eta ezaugarriak ezagutzea testuak ondo ulertzeko eta egoki itzultzeko.
- **Azken ataza:** Erromatar inperioaren hedapena ezagutzea eta indikatibozko aditzak identifikatu eta egoki itzultzea.

5. unitatea: Hispania erromatarra

- **Arazoa:** Nola banatu eta antolatu zuen Hispania Erromak?
- **Testuingurua:** Hispaniako probintzia, kolonia eta udalerriak ezagutuko ditugu, betiere testuak modu egokian itzultzeko helburuarekin.
- **Azken ataza:** Hispania erromatarren antolakuntza orokorra ezagutzea eta testu geroz eta konplexuagoak itzultzea.

6. unitatea: Armada erromatarra

- **Arazoa:** Zein baliabide zituen Erromak hain boteretsua bihurtu ahal izateko?
- **Testuingurua:** Armada erromatarra eta haren ezaugarriak ezagutuko ditugu, testuetan asko aipatzen den gaia baita eta hitz teknikoak sarritan agertzen baitira.
- **Azken ataza:** Armada erromatarren osaera ezagutzea eta ezaugarri nagusienak aipatzen jakitea. Horrez gain, testuetan edozein motetako izen edo aditzekin aurkituz gero, egoki identifikatzen eta itzultzen jakitea.

7. unitatea: Kultura erromatarra; erlijioa

- **Arazoa:** Gure erlijioa eta erromatarrena berdina da?
- **Testuingurua:** Testuetan agertzen zaiguna ondo ulertu eta itzultzeko gai izate aldera, kultura erromatarra lantzen hasiko gara, hain zuzen ere, erlijioa. Honekin erlazionatuta, jainko erromatar eta grekoak ikusiko ditugu, eta baita erritu eta sakrifizioak ere.
- **Azken ataza:** Kultura erromatarraren inguruko ezagutza minimoak eskuratzea eta zailtasun-maila altuagoa duten perpaus sinpleak aztertu eta itzultzeko gai izatea.

8. unitatea: Kultura erromatarra; familia, etxebizitza eta ohiturak

- **Arazoa:** Nolakoak ziren familia erromatarak? Zein ohitura zituzten? Zein antzekotasun dituzte gurekin alderatuz?
- **Testuingurua:** Esaldi eta testu batzuk familia erromatarraren inguruan egiten dute hitz. Horregatik, aipatutako gaiarekin erlazionatuta, haien ohitura garrantzitsuenak ezagutuko ditugu. Gainera, mendeko perpausak aztertu eta itzultzen hasiko gara.
- **Azken ataza:** Familia erromatarraren ezaugarri eta ohitura nagusiak aipatzeko gai izatea eta mendeko perpausak dituzten esaldi eta testuak aztertu eta itzultzen hastea.

9. unitatea: Kultura erromatarra; ingeniartza-lanak eta aisialdia

- **Arazoa:** Erromatarren bizitzan dena ez zen gerra. Nola pasatzen zuten haien denbora libre? Eta non?
- **Testuingurua:** Itzuli behar ditugun testuetan sarritan egiten zaio hirigintzari erreferentzia. Horregatik da hain garrantzitsua aipatutakoa ezagutzea. Horrez gain, mendeko perpaus mota gehiago ezagutuko ditugu.
- **Azken ataza:** Kultura erromatarraren gehiago sakontzea eta mendeko perpaus mota gehiago aztertu eta itzultzeko gai izatea.

10. unitatea: Kultura erromatarra; egutegia, merkataritza eta zuzenbide erromatarra

- **Arazoa:** Zein ziren kultura erromatarraren beste osagai batzuk? Zergatik izan da hain garrantzitsua?
- **Testuingurua:** Kultura erromatarraren badira beste hainbat elementu oso garrantzitsuak izan zirenak, egutegia, merkataritza eta zuzenbide erromatarra, besteak beste.
- **Azken ataza:** Kultura erromatarraren inguruan hausnarketa egin ahal izatea eta indikatiboan idatzitako edozein esaldi eta testu sinple aztertu eta itzultzeko gai izatea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. unitatea: Erromaren sorrera

- a) Hizkuntza:
 - i) Alfabeto latindarra eta haren ahoskera.
 - ii) Morfologia nominala: generoa, numeroa eta kasua.
 - iii) Aditzen flexioa.
- b) Latinetik hizkuntza erromantzeetara: Indoeuroparra; latina eta hizkuntza erromantzeak.
- c) Kultura: Erromaren sorrera; kondaira eta historia.

2. unitatea: Erromaterren aurreko Hispania

- a) Hizkuntza:
 - i) Lehen deklinabidea.
 - ii) Bigarren deklinabidea.
 - iii) Lehen klaseko izenondoak.
 - iv) Perpaus bakunak eta bere osagarriak.
- b) Latinetik hizkuntza erromantzeetara: Erromatarren aurreko substratu linguistikoak.
- c) Kultura: Monarkia. Erromaren aurreko Hispania.

3. unitatea: Errepublika erromatarra

- a) Hizkuntza:
 - i) Hirugarren deklinabidea.
 - ii) Bigarren klaseko izenondoak.
- b) Kultura: Errepublika; antolakuntza soziala, erakunde politikoak, Erromaren hedapena.

4. unitatea: Erromatar inperioa

- a) Hizkuntza: Indikatiboko aditzak.
- b) Kultura: Erromatar inperioa; sorrera, antolamendua eta hedapena.

5. unitatea: Hispania erromatarra

- a) Hizkuntza:
 - i) Laugarren deklinabidea.
 - ii) Bosgarren deklinabidea.
 - iii) Zenbakiak.
- b) Kultura: Hispania erromatarra.

6. unitatea: Armada erromatarra

- a) Hizkuntza:
 - i) Izenordainak; erabilera eta funtzioak.
 - ii) Preposizioak.
- b) Kultura: Armada erromatarra.

7. unitatea: Kultura erromatarra; erlijioa

- a) Hizkuntza: Izenondoen graduak; positibo, konparatibo eta superlatiboa.
- b) Kultura: Erlijioa.

8. unitatea: Kultura erromatarra; familia, etxebizitza eta ohiturak

- a) Hizkuntza: Erlatibozko perpausak.
- b) Latinetik hizkuntza erromantzeetara: Gaztelaniaren sorrera eta Erdi Aroa.
- c) Kultura: Familia, etxebizitza eta ohiturak.

9. unitatea: Kultura erromatarra; ingeniartza-lanak eta aisialdia

- a) Hizkuntza: Infinitiboa eta bere funtzioak.
- b) Latinetik hizkuntza erromantzeetara: Hizkuntza Urrezko Mendean.
- c) Kultura: Ingeniartza-lanak eta aisialdia.

10. unitatea: Kultura erromatarra; egutegia, merkataritza eta zuzenbide erromatarra

- a) Hizkuntza: Pasiboa.
- b) Latinetik hizkuntza erromantzeetara: XVIII-XX. mendeetako gaztelania.
- c) Kultura: Egutegia, merkataritza eta zuzenbide erromatarra.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jardura motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA. Eduki komunak.
2. MULTZOA. Latina.
3. MULTZOA. Latinezko testuak eta haien interpretazioa.
4. MULTZOA. Latinaren flexioa eta haren bilakaera.
5. MULTZOA. Erroma eta haren ondarea.

JARDURA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gaingintzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Irakasleak sortutako hainbat ariketa orri (testuak itzultzeko) eta apunte.
- Latineko hiztegia.
- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jardura guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (esaldiak eta testuak, apunte eta eskemak, bideoak, material gehigarria

eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak plataforma birtualaren bidez jasoko dira.

Ikasleen lanerako Drive-ek eskaintzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, eskuz aztertutako esaldiak irakasleari entregatzeko aukera ere izango dute edota, nahiago izanez gero, mugikorra edo beste gailu elektronikoko baten bidez argazki bat atera eta JPG formatuan igo ahal izango dute.

Pandemia egoeran Meet eta G-Suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroom-en txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten.

TALDEKATZEAK

Gehienbat bakarka, baina binaka ere antolatuko gara, betiere ariketa bakoitzak ematen dituen aukerak kontutan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA

- Normalean ikasgela erabiliko da, baina noizbehinka, beharraren arabera, beste gela batzuk ere erabiliko ditugu.
- Astean lau saio dira. Hiruhilerokorako aukeratutako edukiak lantzeko, hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira unitate didaktiko bakoitzean.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna baliatuko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Ariketak egingo dituzte gaiak barneratu eta sakontzeko helburuarekin. Ondoren, irakasleari zuzentzeko emango dizkiote eta behar izanez gero berriro egingo dituzte.
- Indibidualki zein binaka lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasten ikasteko gaitasunaren bidez, jarduerak egiteko eta edukiak barneratzeko teknika egokienak erabiltzea.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Ebaluazio bakoitzaren amaieran azterketa bat egingo da. Bestalde, gai bat amaitzen dugun bakoitzean kontrol txiki bat egingo dugu, ikasleak gaia ulertu duen ala ez ikuste aldera. Klasean egindako lanak eta parte hartzea ere kontutan hartuko da.	Ebaluazio amaierako azterketak notaren gehiengoa balioko du, %70a alegia. Gai bakoitzaren amaieran egingo diren kontrolek %20a balioko dute. Klaseko ariketek eta parte-hartzeak %10a balioko dute.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]	
Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira eta ikasleek gainditu ez dituzten atal/atalak egin beharko dute/dituzte. 3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez dutenek, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko dute, hau kurtso osokoa izanik. 1. deialdiko azterketa gainditzen ez dutenei, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie 2. deialdirako. Kurtsoko batez besteko nota igo nahi dutenek ebaluazio bakoitzaren berreskurapen egunetan egin behar dute azterketa, non ebaluazio osoko materia sartzen den.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Etaia:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	1. MAILA
Arloa/irakasgaia:	GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATURIKO MATEMATIKA I		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duten zenbait egoera problematiko, eta, horrela jokatzeko, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea. 2. Jakintza matematikoak erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea. 3. Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilita. 4. Jakintza matematikoak ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta. 5. Arrazoitzeko modu askotarikoak erabiltzea nork bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonen aurkeztutako emaitzak modu kritikoa aztertzeke ere. 6. Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatea kalkulatzeko, irudikatzeke eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.		
Irakasleak:	Iñigo Jaka Ruiz	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Matematikari berari edo gizarte-errealitateari buruzko problemak planteatzea eta ebaztea, hipotesiak adieraziz, zenbait estrategia hautatuz eta erabiliz, ebazpen-prozesua arrazoituz, emaitzak justifikatuz, eta egoera berriei aplikatzea, gaur egungo gizarteko erronken aurrean modu efizienteagoan jardun ahal izateko. 2. Matematika aplikatzea modelo teorikoak – aljebraikoak, funtzionalak, estatistikoak edo probabilitatekoak– eta horiekin lotutako edukiak erabiliz, gizarte-zientzien esparruko fenomenoari buruzko analisiak, interpretazioak eta auresateak egiteko. 3. Arrazoitzeko diskurtsoa erabiltzea, problemetan epaiak egiteko eta erabakiak hartzeko metodo gisa, prozedurak justifikatuz, argumentuak behar bezala kateatuz, norberaren arrazoibideak indartuz, gainerakoek kritikoki aztertuz, eta, aldi berean, jarrera malgua, irekia eta kritikoa erakutsiz.	• Informazioa aurkeztea eta trukatzeko, eguneroko bizitzako egoerei edo interes soziala duten egoerei buruzko analisiak egitea eta ondorioak ateratzea, zenbaki errealak eta haien eragiketak erabiliz. • Adierazpen aljebraikoen bidez modelizatu daitezkeen eguneroko bizitzatik ateratako problemak eta egoerak ebaztea, eta emaitzak testuinguruari egokituta interpretatzea. • Interesak kalkulatzeko eta zenbait parametro ekonomiko eta sozial interpretatzea eskatzen duten matematika finantzarioaren esparruko problemak ebaztea, bitarteko teknologiko egokiak erabiliz. • Fenomeno sozialak eta ekonomikoak interpretatzea, analizatzea eta haien buruzko ondorioak ateratzea, oinarriko funtzioen (polinomioak, arrazional errazak, esponentzialak eta logaritmikoak) familien bidez modelizatuz, eta haien oinarriko ezaugarriak aztertuz.

4. Hizkuntzaren beraren tresnak eta adierazpen matematikoa (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, ikur erabilienak, etab.) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, eta gai, idazkera eta adierazpen matematikoa ulertzea eta erabiltzea, norberaren pentsaera argi eta garbi eta koherentziaz adierazteko. 5. Informazioaren eta komunikazioaren gaur egungo teknologiek emandako baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) arrazoiz erabiltzea, egoera bakoitzean informazioa lortzeko eta prozesatzeko egokienak aukeratuz, datu kantitate handiak erabiltzeko eta kalkuluak zehaztasunez eta azkartasunez egiteko, problemen ebazpenean aplikatzeko. 6. Matematika kulturaren parte dela balioestea, bai ikuspegi historikotik bai gaur egungo gizartean duen zereginagatik, matematikaren eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-inguruneen artean erlazioak ezarri, denetarik gizarte-fenomenoen aurrean norberaren konpromisoari buruzko jarrerak aztertze, balioesteko eta errazteko. 7. Jarduera matematikoko eta gizarte- eta ekonomia-ikerketako jarrerak eskuratzea eta erabiltzea, lanerako beharrezkoak eta ohikoak direlako; esate baterako, hizkuntza matematiko zehatzaren balioespena, datuak egiaztatzea eta kontrastatzea, argudioen analisi kritikoa, prozesuen eta emaitzen berrikuspen sistematikoa, eta taldeko lanaren balioespena. 8. Matematikan, beste ikasgai batzuekiko loturetan eta beste ikasgaietako aplikazioetan aurrera egiteko aukera ematen duten matematikako kontzeptuak, prozedurak eta estrategiak erabiltzea, gizarteko, ekonomiako edo beste esparru batzuetako ikasketetarako sarbidea izateko.	• Funtzio bati dagokion fenomeno sozialekin lotutako egoera enpirikoetatik ateratako datu-etaulak edo grafikoak egitea, zenbakizko metodoen erabilera erraztuz (esate baterako, interpolazioa edo estrapolazioa), balio ezezagunak kalkulatzeko. • Limite, jarraitutasun, batez besteko aldakuntza-tasa eta deribatu kontzeptuak kalkulatzeko eta interpretatzeko, eta deribazio-arau errazak eta haien eragiketak funtzio errazetan erabiltzea, zenbait fenomeno sozialen aldaketak eta aldakuntzak analizatzeko. • Fenomeno sozialei buruzko bi aldagairen arteko erlazioari buruz ondorioak ateratzea, bi dimentsioko banaketari dagozkion taulak eta grafikoak eginez eta interpretatuz, eta korrelazio-koefizientea eta erregresio-zuzena erabiliz. • Probabilitatearen banaketa binomiala edo normala erabiliz modelizatu daitezkeen fenomenoak eta egoerak identifikatzea, haien parametroak kalkulatzeko eta haiekin lotutako zenbait gertaeraren probabilitatea kalkulatzeko, interpretatzeko eta ondorioak ateratzeko. • Eguneroko bizitzako problemei eta ikerketa txikiei ekitea, informazioak antolatuz eta kodetuz, hipotesiak eginez, estrategiak aukeratuz, eta matematikaren beraren tresnak eta argudiatze moduak erabiliz. • Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, norberaren ahalmenetan konfiantza eta iraunkortasuna izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritzia ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
14	ARITMETIKA	13	4. Ekuazio sistemak eta inekuazioak.	10	7. Limiteak.
	1. Zenbaki errealeak, berreketak, erroketak, logaritmoak.	18	ANALISIA	13	8. Deribatuak eta bere erabilerak.
9	2. Merkataritza-aritmetika.	4	5. Oinarrizko Funtzioak.		PROBABILITATEA
	ALJEBRA		6. Funtzioen eraldaketa.	12	9. Konbinatoria, probabilitateen kalkulua eta banaketa binomiala.
12	3. Ekuazioak.				

METODOLOGIA

Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, Matematikaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

- Gai batzuetan ikasleen ikerketa bultzatuko da, aurreko ezagutzetan oinarrituz gai berrien prozedurak aurki ditzaten.
- Gelan ikasleak hirunaka eseriko dira, elkarlana eta lankidetzat bultzatzeko.
- Irakasleak gaiak azalduko ditu, ikasle guztiak uler ditzaten.
- Ikasleek gai batzuk prestatuko dituzte eta besteen aurrean azaldu. Gaien laburpenak eta eskemak bultzatuko dira ikasleek edukiak bere garrantziaren arabera sailkatzen ikas dezaten.
- Lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten.
- Aplikazio informatikoak erabiliko dira ikasleek bere ordenagailuetan ere ariketa batzuk ebatz ditzaten.
- Irakasleak, klasearen martxari erreparatuta, flipped classroom metodologia erabiltzea erabaki dezake. Ikasleek etxean gaien azalpenak bideoen eta jardueren bitartez jasoko dituzte, eta klasean ikasitakoa praktikan jarriko dute.

BALIABIDEAK:

Apunteak: Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apuntetan oinarritua dago.

Internet: Geogebra eta beste programa eta baliabide batzuk (web-orriak, animazioak, bideoak) gaietan sakontzeko erabiliko dira. Baita ikasleen ikerketak egiteko ere.

Alexia Classroom (moodle): bertan apunteak zintzilikatuta daude, eta plataforma honek ematen dituen aukerak aprobetxatuz bideo interaktiboak, youtubeko bideoak, geogebra appletak, aurkezpenak eta abar txertatzen dira.

Programa informatikoak: ohiko tresnak aparte (papera, boligrafoa eta kalkulagailua), ordenagailua ere zenbait ikerketa egiteko erabiliko dute (Geogebra funtzioak aztertzeko, adibidez). Merkataritza-aritmetikako proiektua egiteko testu-editorea (word, google dokumentuak...) eta kalkulu-orria (excel, google kalkulu-orriak...) erabiliko dute.

Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
• Ebaluazioan zehar bi azterketa egingo dira. Lehenengoa gaingintzen bada, bigarren azterketan zati hori ez da egin behar. • Ebaluazio batzuetan gaiarekin doan proiektu bat ere egingo da. • Flipped classroom metodologia erabiltzen bada, honen jarraipena eta klasean egindako lana ere notarako kontuan hartuko dira. • Kurtzoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da. • Idatzizko azterketetan eta proiektuan kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	• Ebaluazioko nota bi azterketetan eta proiektuan (ebaluazio horretan egiten bada) oinarrituko da. ➢ Lehengo azterketaren balioa %40 (%50 proiektua ez badago) izango da. Ikasleak azterketa gaingintzen badu, zati hori liberatu egingo du, bestela bigarren azterketan errepikatu beharko du. ➢ Bigarren azterketaren balioa %40 izango da (%50 proiektua ez badago). ➢ Proiektuaren balioa %20 izango da (ebaluazio horretan egiten bada). • Flipped classroom metodologia erabiltzen bada, azterketen eta proiektuaren balioa notaren %90 izango da. Beste %10 etxean egindako jarraipena eta klasean egindako lana izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• Ebaluazioa gaingitu ez bada, berreskurapena azterketa berrirori egitea izango da. ○ Azterketaren zatiak ez dira gordeko, nahiz eta aprobetxatuta eduki, azterketa osoa egin beharko da. ○ Talde-lanen eta proiektuen nota gordeko da.	

- Berreskurapena gainditzeko 5 bat nahikoa izango da. 5 bat baino gehiago bada, biribiltzeko momentuan puntu bat jaitsiko da, bere garaian ateratzen duena eta errekupeazioan ateratzen duena bereizteko.
- Nota igotzera aurkezten dena azterketa osoa egin beharko du.
- Ezohiko deialdian aprobatur gero, nota 5 bat izango da, ebaluazioetan zehar atera duenarengandik bereizteko.

OHARRAK

URTEKO/ZIKLOKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	Oiertzo Batxilergoa Ikastola	Kodea:	013379
Etapia:	Batxilergoa	Zikloa/maila	1.maila
Arloa/irakasgaia:	Mundu Garaikidearen Historia		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia - Arterako konpetentzia		
Irakasleak:	Andrea Etxaniz Olatz Mitxelena	likasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Mundu garaikidearen historiako gertakari eta gertaera garrantzitsuak aztertu, azaldu eta denboran eta espazioan behar bezala kokatzea, prozesu historikoan duten esanahia eta gaur egun dituzten ondorioak balioesteko. 2. Historia hurbila osatzen duten prozesu ekonomiko, demografiko, sozial, politiko eta kultural nagusiak ulertzea eta, horretarako, haiei lotutako hainbat faktore aztertzea, ezaugarriak esanguratsuenak identifikatzeko. 3. Ikuspegi lokalistik eta eurozentristak gaindituz oraingo egoeren eta arazoen analisia erraztuko duen mundu garaikidearen ikuspegi orokor bat eskuratzea, eta, horretarako, egoera eta arazo horien aurrekari historikoak zein elkarrekiko mendekotasuneko loturak kontuan hartzea. 4. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak behar bezala erabiltzea, hainbat informazio aztertu, konparatu eta bateratzea, eta ikerketa historikoko lanak egitea (bakarka edo taldean), lehen eta bigarren mailako iturri historikoen garrantzia eta historialarien lana balioesteko.	1. Mundu garaikidearen historiaren etapa handiak eta ezaugarriak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haien arteko aldeak eta antzekotasunak bereiztea, eta egungo munduan izan duten eragina eta oihartzuna balioestea. 2. Mundu garaikidearen historiako prozesu historikoen garrantzitsuenak ezagutzea, eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea. 3. Munduan gaur egun tentsio politikoa edo soziala bizi duen gune bati buruzko lan bat planifikatu eta egitea, bakarka edo taldean, eta haren aurrekari historikoak eta zergatiak aztertzea eta zer gerta daitekeen iragartzea. Hori guztia informazio-iturri egokiak erabiliz egitea –besteak beste, gertakari beraren beste interpretazio batzuk ematen edo interpretazio osagarriak egiten dituztenak–. 4. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak erabiltzea, lehen eta bigarren mailako iturri historikoen betetzen duten zeregina balioestea, historialariaren lana aintzat hartzea eta jakintza historikoa etengabe lantzen ari den prozesua dela ulertzea.

5. Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko. 6. Datu historikoak biltzea eta, horretarako, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denbora-posizio erlatiboak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa, koiunturala, egiturazkoa, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak) eta denbora-neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiltzea, gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzeko. 7. Gizarte-arazoen aurrean (eta, bereziki, giza eskubideak, bakea eta desberdintasuna - alderdi guztietan - eraginpean hartzen dituzten arazoen aurrean) sentsibilitatea eta erantzukizuna garatzea, jarrera demokratikoak, tolerantzia-jarrerak eta parte-hartzea bultzatzen dutenak hartzea, eta irizpide-independentsia eta zorrotasun intelektualeko ohiturak eskuratzea. 8. Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoiu eta kritiko bat izateko. 9. Egungo gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea eta gizarte horien barneheterogeneotasuna balioestea, haien bilakaera historikoaren ikuspegi orokor bat izateko. 10. Hainbat iturritatik lortutako informazioa bilatu, hautatu, interpretatu eta lotzea, eta historiaren berezko tresnen arabera komeni den bezala tratatzea, prozesu historikoak azalduko dituzten hipotesiak lantzeko.	5. Egoki, berezkotasunez eta modu sortzailean adierazten ditu ikasgaiaren berezko edukiak, ahoz edo idatziz. 6. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzeko eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak adierazteko, eta zenbait garaitan eta lurralde-eremutan erabiltzea. 7. Sistema demokratikoen antolamenduaren eta erakundeen oinarri diren printzipioak identifikatzen eta azaltzen ditu, eta sistema horien garapen progresiboan eragina izan duten faktoreak eta zirkunstantzia historiko jakin batzuetan sistema horien hondamena eragin duten faktoreak aztertzen ditu. 8. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariak hainbat arrazoi izan ditzaketela. 9. Egungo munduko gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzen du, eta horretarako mota orotako informazioak aztertzen ditu (sozialak, kulturalak, historikoak eta abar). 10. Hainbat informazio aztertu, kontrastatu eta bateratzen dituzten ikerketa edo sintesi historikoko lan laburrak planifikatzea eta lantzea (bakarka edo taldean), horren bidez zorrotasun intelektualek ohiturak hartu eta finkatzeko.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

1. Multzoa: Antzinako Erregimena

- 1.1. Antzinako Erregimenaaren ezaugarriak
- 1.2. Eraldaketak Antzinako Erregimenean: ekonomia, populazioa eta gizartea
- 1.3. Iraultzak eta parlamentarismoa Ingalaterran
- 1.4. Ilustrazioaren garaiko pentsera
- 1.5. Nazioarteko harremanak: oreka Europa

2. Multzoa: Antzinako Erregimenaren krisia

- 2.1. AEBren sorrera.
- 2.2. 1789ko Iraultza Frantzia: alderdi politikoak eta sozialak
- 2.3. Inperio napoleonikoa.
- 2.4. Vienako Batzarra eta Absolutismoa, eta 1820ko, 1830eko eta 1848ko iraultza liberal edo burgesak.
- 2.5. Nazionalismoa: bateratzeak Italian eta Alemanian.

3. Multzoa: Industria-iraultzak eta haien gizarte-ondorioak

- 3.1. Iraultza edo/eta industria-iraultzak: ezaugarriak
- 3.2. Berrikuntza teknikoak eta energia-iturri berriak.
- 3.3. Industria Iraultzak eragindako aldaketak: garraioak, nekazaritza, populazioa (migrazioak eta hiri industrialaren gaineko ikuskera berria).
- 3.4. Britainia Handiaren protagonismoa eta industrializazioa Europako beste zonalde eta herrialde batzuetara zabaltzea.
- 3.5. Industrializazioa Europatik kanpo.
- 3.6. Ekonomia industrial: pentsaera eta lehen krisiak.
- 3.7. Proletarioen jatorria eta langile-klasearen antolamendua: sindikalismoaren sorburuak eta pentsaera-ildoak, langileen alderdi politikoak

4. Multzoa: Europaren nagusitasuna munduan, eta I.Mundu Gerra

- 4.1. Europako, Amerikako eta Asiako estatu nagusien bilakaera.
- 4.2. Ingalaterra viktoriarra.
- 4.3. Frantzia: III. Errepublikak eta II. Inperioa.
- 4.4. Alemania Bismarcken garaian, Inperio Austrohungariarra eta Errusia.
- 4.5. Herrialde industrialen hedapen kolonialista: arrazoiak, Asiaren eta Afrikaren kolonizazioa eta beste gune kolonial batzuen banaketa, eta horren guztiaren ondorioak.
- 4.6. Bake Armatua: Aliantza hirukoitza eta entente hirukoitza. I. Mundu Gerra: kausak, gertakariak eta ondorioak. Euskaldunak I. Mundu Gerran. Gerra osteko krisia.

5. Multzoa: Gerrarte, II.Mundu Gerra eta ondorioak:

- 5.1. XX. mendeko garai historikoa.
- 5.2. Garai hartako ekonomia, gizartea eta kultura: hogeigarren hamarkada. Errusiako iraultza, SESBen sorrera eta bilakaera. Leninetik Stalinera.
- 5.3. Nazioarteko harremanak gerrartean. Bakerako diplomaziatik Alemaniak Europan eta Japoniak Asian abiatutako espansionismoa. Bake-itunak eta doikuntzak nazioartean: Nazioen Liga
- 5.4. Estatu Batuek eta 1929ko krisia: Depresio Handia eta New Deala.
- 5.5. Europa Mendebalde: berreraikuntzaren eta krisiaren artean.
- 5.6. Faxismo europarrak eta nazismo alemaniarra.
5. Azalpen eskemak eraikitzea landuko da, kontzeptuak, ereduak eta teoriak uztartuz, ezagupen horiek ondo barneratu eta eguneroko bizitzan erabili ahal izateko.
6. Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan.
7. Bakarkako eta taldeko lan praktikak egin beharko dituzte ikasleek.

DENBORALIZAZIOA:

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
Geologia: 1. Lurraren egitura eta konposizioa • Eguzki sistema • Geosfera eta bere konposizioa 2. Lurraren dinamika • Litosfera • Dinamikaren ondorioak 3. Prozesu geologikoak: endogeno • Litosferaren deformazioa • Magmatismoa 4. Prozesu geologikoak: exogenoak • Lurzorua • Harri sedimentarioak	Biologia: 5. Biziaren materia. Izaki bizidunak • Bioelementuak • Biomolekulak 6. Biziaren antolakuntza • Zelula • Metabolismoa • Forma ez zelularrak 7. Ehunak • Landare ehunak • Animalia ehunak 8. Bizia betikotzea • Ziklo biologikoa • Mitosia • Meiosia	Biologia: 8. Izaki bizidunen sailkapena • Protoktistak, moneroak, onddoak, landareak eta animaliak • Erreinuen ezaugarriak 9. Landareak • Nutrizioa • Ugalketa 10. Koordinazio sistema animalietan • Estimulua • Nerbio sistema • Sistema endokrinoa 11. Ugalketa animalietan

BALIABIDEAK:

Liburua: BIOLOGIA. 1 Batxilergoa. Anaya-Haritz argitaletxea.

Gelako aurkezpenak. Gai batzuetan aurkezpenak erabiliko da ikasgelan aurkezteko.

Bideoa eta dokumental pertinenteak erabiliko dira gaien osagarri.

IKT baliabideak: Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Hau da ikasgela birtualaren helbidea: [Alexia Classroom](#)

- Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahalko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.
- Eskatutako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.
- Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
1. Ikasgaian hiru ebaluazio partzial egingo dira. 2. Ebaluazio bakoitzean bi idatzizko proba egingo dira, bat ebaluaketa erdian eta bestea ebaluaketa garaian. 3. Laborategiko esperimentuak planteatzen direnean, bertan egindako lanaren inguruan txosten bat entregatu beharko da 4. Gai guztietan eskema entregatu beharko dituzte 5. Azterketa eta entregatutako lan teorikoetan kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	1. Ebaluazio partzial bakoitzean bi azterketa egingo dira. Lehenengo azterketa ebaluazio-egunetatik kanpo egingo da eta ikasleak gaitzen badu, materia hori hurrengo azterketatik kendu dezake. Bigarrena, ebaluazio-egunetan egingo da. Ebaluazioko batz bestekoa egiteko bietan gutxienez 4 bat atera beharko dute, eta bien arteko batz bestekoak gutxienez 5a eman beharko du 2. Lehenengo azterketa gaitzen ez duenak, edo nota gehiago lortu nahi duenak, ebaluazio-egunetan ebaluaketa osoko gaien azterketa egin beharko du. 3. Ebaluazioan zehar eskatutako lanak entregatzea beharrezkoa izango da ebaluaketako batz bestekoa egiteko. Entregatu beharreko lanak entregatu ezean ezingo da batz bestekoa egin eta errekupeazio azterketa egin beharko du ikasleak. 4. Bi azterketen pisua gutxienez 60% izango da eta lanena gehienez 40%. Lan eta azterketen pisu zehatza ebaluaketan zehar definituko da, entregatutako lan kopuruen arabera. 5. Gai guztietako laburpen-eskemak entregatzea beharrezkoa da eta positiboki baloratuko dira. 6. Zati bat edo gai guztia gaitzen ez duenak, ebaluazioko gai guztiaren errekupeazio-azterketa egin beharko du errekupeazio egunetan. Errekupeazioan ateratako nota izango da ebaluaketa horretako batz bestekoa. 7. Nota igo nahi duenak, errekupeazio egunetan azterketa osoa egin beharko du, eta ebaluazioko nota azterketa horretan ateratako nota izango da.

	8. Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da bataz bestekoa egiterakoan. Gutxienez puntu bateko pisua edukiko du ebaluaketako notaren bataz bestekoan. 9. Azken nota hiru ebaluazioetako noten bataz bestekoa izango da. Hiru ebaluaketak lehenengoan gaitzen dituen ikasleari, nota finaleko bataz bestekoan puntu erdi bat gehituko zaio zuzenean.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]	
1. Ebaluazio bakoitzaren ondoren errehabilitazio-azterketa bat izango da. Azterketa hori ebaluazioko gai guztiarena izango da, eta bertan ateratako nota izango da ebaluaketako nota. 2. Ikasturte bukaeran aurretik gaitzen gabeko ebaluaketak gaitzeko aukera emango zaie ikasleei. 3. Kurtsoko nota globala igotzeko aukera ere izango du, horrela nahi duenak, horretarako azterketa berezi bat eginaz.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	Marrazketa Teknikoa I		
irakasleak:	Araitx Olaiz Leibar	ikasturtea:	2021-22

ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	Marrazketa Teknikoa I		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertze metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapeña eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin. 2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuko ohiko arazoak konpontzeko. 3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agirien bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeko. 4. Produkzio-sistemetako osagaien bereizketa sistemikoa egitea eta haiengandik lortu beharreko objektu, sistema edo zerbitzuekin erlazionatzea, erabiltzen diren baliabideak eta iritsiko den azken emaitza optimizatze.		
irakasleak:	Araitx Olaiz Leibar	ikasturtea:	2021-22

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Aintzat hartzea zer eginkizun eta garrantzi duen marrazket teknikoak norbanakoen eta gizarteen bizitzan, hainbat eta hainbat alderditan (artean eta teknikan, adibidez), eta jakitun izatea hizkuntza objektibo eta unibertsala dela. Horren guztiaren helburua da ulertzea zer eginkizun duen informazioa ulertu, aztertu eta adieraztean. 2. Marrazketa teknikoaren berezko terminologia, lexikoa eta tresnak zein diren jakitea, eta modu egokian erabiltzea zenbait adierazpen-problemari emandako soluzioak besteei janarazi eta arrazoitzeko. Horren bidez, sakonago ikasiko dira marrazketa teknikoaren prozedurak eta aberastasun handiagoa izango da komunikazio trukean. 3. Ebazpen eta eraikuntza grafikoen eraginkortasunez egitea, aintzat hartuta ebazpen grafikoen zehaztasuna, argitasuna eta objektibotasuna funtsezkoak direla ideiak eta informazioak egoki komunikatu, jakinarazi eta interpretatzeko. 4. Geometria metrikoaren oinarriak jakin eta ulertzea, eta hare baliabideak egoki erabiltzea, planoan formak eratzeko problemetan erabiltzeko, egoerak problematizatzeko, ideiak berregiteko eta konponbide arrazoituak eta askotarikoak proiektatzeko. 5. Adierazpen-sistemak aintzat hartu eta erabiltzea espazioa problema geometrikoak ebazteko eta planoan hiru dimentsioko formak irudikatzeko, eta problema bera sistema desberdinez ebaztean lortutako emaitzak alderatzea, kasuan-kasuan egokiena eta adierazgarriena dena aukeratzeko, eta azterketa-ahalmena, hausnarketa kritikoa, komunikazioa eta pentsamendu dibergentea garatzeko. 6. Marrazketa teknikoaren oinarriak jakin eta ulertzea, haren arauen unibertsaltasunean oinarrituta, planoak, diseinuak eta produktu artistikoak irakurri eta interpretatzeko erabiltzeko, formak irudikatzeko eta problema geometrikoak soluzio arrazoituak emateko. 7. Krokisa, bozetoa eta apuntea zer diren jakitea eta zein garrantzitsuak diren jabetzea, ezinbesteko elementuak baitira diseinu-prozesuan eta konponbideen bilaketan, adierazpenak abileziak eta azkar egiteko eta adierazpen grafiko egokia lortzeko. 8. Banaka eta taldean, edozein eraikuntza geometrikoren plangintza egitea eta hura egiteko prozesuak hausnartzea, ulertzeko zein garrantzitsua den beste pertsona batzuekiko.	1. Ingurunean eta arte-adierazpenetan geometriako elementuak bereiztea, eta adierazpen- eta komunikazio-bitarteko moduan duten garrantzia aintzat hartzea. 2. Ikasgaiaren beraren lexikoa eta terminologia egoki erabiltzea, bai eta tresnak eta prozedurak ere, ideiak eta informazioak zuzen jakinarazi eta interpretatzeko. 3. Marrazketa teknikoko prozedurei eta baliabide grafikoei buruzko ezagutzak aplikatzea, lan proiektuak egoki bukatuta eta aurkeztuta egon daitezen. 4. Oinarrizko eraikuntza geometrikoak dituzten formak eratzea eskatzen duten problemak aztertzea eta grafikoki ebaztea, prozeduretan koherentziaz jokatzuz, metodo arrazoituak erabiliz eta egoki aurkezteko interesa izanik. 5. Adierazpen-sistema nagusien komunikazio- eta azterketa-aukerak bereiztea, eta proiektu bat egoki jakinarazteko unean-unean egokiena zein den adieraztea. 6. Sistema diedrikoan irudi lauak, oinarrizko bolumenak eta forma poliedrikoak adieraztea, bai eta puntuaren, zuzenaren eta planoaren arteko erlazio espazialak ere. 7. Sistema axonometrikoetan (ortogonaletan eta zeharretan) eguneroko inguruneen hiru dimentsioko objektuak adieraztea, lehendik ezagunak dituen gainazalez osatutakoak. 8. Perspektiba konikoa objektuak ikusten ditugun moduan adierazteko proiektzio-sistema dela jakitea, eta adierazpena haiek espazioan duten posizioaren eta guk haiekiko dugun posizioaren araberakoa dela. 9. Industriako edo eraikuntzako pieza eta elementu errazak marraztea eta egoki aplikatzea adierazpenean adierazitako bistei, akotazioari eta sinplifikazioei buruzko arauak. 10. Krokisa, bozetoa eta apuntea erabiltzea, bilaketa- eta hausnarketa-elementu moduan, lan-prozesuei alternatibak eta soluzioak bilatzeko. 11. Lan-proiektu bat egitea haren helburua aintzat hartuta, argi definitzea zein den prozedura egokia, eta arrazoitzea fase bakoitza zergatik den baliagarria eta egokia. 12. Baliabide informatikoak bere adierazpen- eta komunikazio-asmoak eta -helburuak arrakastaz garatzeko aukera ematen dioten adierazpen tresnatzat hartzea.

ARAZO EGOERA

1. ebaluazioa

1. Geometriaz formak lantzen.

Azken ataza: Oinarrizko trazadura geometrikoekin diseinu ezberdinak irudikatuko ditugu.

2. ebaluazioa

2. Adierazpen sistemak frogatzen.

Azken ataza: Hiru dimentsiotako bolumenak planoan adieraziko ditugu.

3. ebaluazioa

3. Normalizazioa lagun trazaduren egokieran sakontzen.

Azken ataza: Unibertsala den hizkuntza grafikoa erabili eta balioetsiko dugu.

EDUKIEN SEKUENTZIA

Denbora tartea: 1. ebaluazioa

0. Marrazketa teknikora eta Geometriara sarrera.

Hasiera ekintza

1. Oinarrizko trazadura geometrikoak planoan.

Luzea: tresnen erabilera+hizkuntza grafiko teknika

2. Proporzionaltasuna, antzekotasuna eta transformazio geometrikoak.

Motza: transbertsala

3. Poligonoak.

Motza: ikasten-ikasteko ariketak

4. Ukitzeak.

Luzea: ukitzeak ebazteko ariketak

5. Kurba teknikoak.

Motza: ikasten-ikasteko ariketak

6. Kurba konikoak.

Luzea: kurba konikoak trazatu eta erabiltzea aplikazio praktikoetan.

Denbora tartea: 2. ebaluazioa

7. Errepresentazio sistemen oinarriak eta xedea.

Hasiera ekintza.

8. Normalizazioa.

Motza: Arauen sailkapena eta aplikazioa.

9. Sistema diedrikora hurbilpena.

Hasiera ekintza.

10. Krokisa egitea.

Motza: Krokisen efikazia balioestea.

11. Bista diedrikoak.

Luzea: oinarrizko solido poliedrikoak adieraztea + 3. bista.

12. Akotazioa.

Motza: kotak jartzea.

13. Sistema axonometrikoa.

Luzea: axonometria ortogonal eta zeiharra erabiliaz gorputz sinpleen adierazpena.

Denbora tartea: 3. ebaluazioa

14. Ebakidurak eta Sekzioak.

Luzea: Normalizazioaren aplikazioak.

15. Homologia eta afinitatea.

Motza: Irudi homotetikoak aurkitzea.

16. Sistema konikora hurbilpena.

Hasiera ekintza.

17. Marrazketa prozedurak sistema konikoan

Motza: perspektiba zentralaren eta zeharraren oinarriak.

METODOLOGIA

BALIABIDEAK

- **LIBURUXKAK:** Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apunteetan oinarritua dago. Ebaluazio bakoitzean liburuxka bana eta unitate horiei lotutako ariketa fitxak izango dira.

Apunte hauek osatzeko erabilitako liburuak bat baino gehiago dira. Horien artean: Marrazketa Geometrikoa eta Geometria Deskribatzailea + Marrazketa Sistema diedrikoan (F. Javier Rodriguez eta Roberto Galarragarenak), Logse-Batxilergoa-Marrazketa Teknikoa (Anaya editoriala) eta Marrazketa Teknikoa (Erein) daude.
- **IKT-EI DAGOKIONEAN:** Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertan izango dira eduki guztiak. Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman honetan: Unitateetako edukiak, ariketa orriak, ariketen ebazpenak, ariketa gehigarriak eta web-orri nahiz Interneteko baliabide ugarietara sarrera.
- Ikasleek zenbait lan digitalean burutuko dituzte eta horretarako Geogebra eta SketchUp bezalako softwareak erabiliko dira.
- Arbela digitalaren laguntzaz Alexia Classroomerako sarrera azkarra izango dugu gelan eta unitateak lantzeko zein ariketak gauzatu eta zuzentzeko herraminta nagusia izango da.
- Pandemia egoeran Meet bidezko komunikazioa bideratuko da , Alexia Classroomen txertatuta, saioak etxetik jarraitu ahal izateko.

TALDEKATZEAK

- Talde txikietan (3 lagunekoak)

ESPazio-DENBORAREN ANTOLAKETA

- Ikasgela, IKT gela eta ikastetxeko zenbait espazio ezberdin erabiliko dugu.
- Astean lau saio dira. Hiruhilekorako antolatutako edukiak lantzeko, hasiera faseei ekingo zaie unitate multzo bakoitzean eta jarraian kontzeptuzko edukiak landuko dira. Ondoren, prozedurak landu eta frogatuko dira aplikazio-ariketa ugarietan.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- **Irakasleak gaiak azalduko** ditu, ikasle guztiek uler ditzaten.

eta aplikatze-ekintzak proposatuko dira, gaietan sakontzeko eta ikasi dutena errealitatearekin lotzeko.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- **Ikasleek ariketak –aplikazio ekintza ezberdinak- egingo** dituzte gaiak ulertu eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleari itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkio ikasleari.
- **Ikasleek zenbait gai eta ariketa batzuk besteen aurrean aurkeztuko dituzte.** Gaiak bereganatuaz eta kolektiboan jardun dezaten.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Ebaluazio bakoitzean **azterketa** bat egingo dugu gutxienez. **Ebaluazio notaren % 60 izango da.**
- Ikasleei jasotako **lanak** kalifikatu egingo dira, eta notaren **%30 balioko dute.**

*Ariketak balekoak badira azterketa arintzeko balio dezakete.
- **Jarrerak** edo lanerako prestutasunak notaren **%10 balioko du.**

EBALUAZIOKO NOTA: EBALUAZIOA GAINDITZEKO ATAL GUZTIAK GAINDITU BEHAR DIRA NAHITAEZ, ONDOREN BAKARRIK EGINGO DA BATEZ BESTEKOA.

JUSTIFIKATU GABEKO HUTSUNEAK JARRERA DESEGOKIA DIRA ETA KALIFIKAZIOAN ERAGINA DUTE (Hutsuneak 3 = Jarrera kalifikazioa O)

AZKEN NOTA HIRU EBALUAZIOEN BATAZ BESTEKOA IZANGO DA.

- NOTA IGOTZEKO AUKERA IKASTURTE BUKAERAKO OHIKO DEIALDIAN SOILIK IZANGO DA, IKASTURTE OSOKO EDUKIAK FROGATUZ.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

-Ebaluazio oro berreskurapen azterketa bat egingo da.

-Behar izanez gero segimenduan, lan-erritmoan eta ariketetan sakonduko da.

OHARRAK

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILLERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxillergoa	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	Fisika eta Kimika		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:	Jone Gallastegi Zapirain / Olaia Zabaleta Lasarte	ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Fisika eta Kimikaren jakintzak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientzia horiek zer harreman duten teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko.	1. Ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak diseinatzea eta egitea, lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz. 2. Laborategiko oinarriko materiala erabiltzea, hautatzea, sailkatzea eta behar bezala erabiltzea. 3. Esperimentazioaren bidez garatzea lan zientifikoaren estrategia nagusiak eta hark berezkoak dituen jarrerak.

2. Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea – bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifikoa saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko Fisika eta Kimikarekin lotutako gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz. 4. Azalpenezko eskemak eginez harremanetan jartzea Fisika eta Kimikaren kontzeptu, lege, modelo eta teoria nagusiak eta orokorrak jakintza multzo koherentetan, eta eskema horiek autonomiaz erabiltzea sistema eta aldaketa fisiko eta kimiko nagusiak interpretatzeko – zientzian nahiz eguneroko bizitzan–, eta zientziaren adar horiek duten garapenaren ikuspegi global bat edukitzeko. 5. Fisika eta Kimika etengabe eraikitzen ari direla ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoak garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.	4. Iritzi propioa izatea eta hizkuntza zientifiko egokia eta testuinguruarekin bat datorrena erabiltzea, lan dokumentalaren eta/edo esperimentalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta denetariko euskarriak erabiliz. 5. Jakintza zientifikoa modu kolektiboan eraikitzen dela balioestea eta zientzien garapena teknologiaren eta beste arlo batzuen aurrerapenekin lotuta dagoela, haiei esker bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobek direla aitortzea, haien mugez ohartzea, eta naturan eta pertsonen bizimoduan zer ondorio dituzten bereiztea. 6. Mikroskopiaaren bidez interpretatzea erreakzio kimikoak, bai eta lege ponderalak eta Gay-Lussac-en erlazio bolumetrikokoak ere, materiaren teoria atomiko-molekularra erabiliz. 7. Substantzien propietate fisikoak azaltzea, haien egitura mota eta lotura kimikoa aintzat hartuz. 8. Materiaren eraketari eta erreakzio kimikoei buruzko problemak aztertzea eta ebaztea, Kimikaren garrantzi soziala justifikatuz (prozesu kimiko industrial nagusien bidez eta produktu kimikoen bizikaltatean duten eraginaren bidez). 9. Hidrokarburoen propietate fisikoak eta kimikoak azaltzea, bai eta haien garrantzi soziala eta ekonomikoa ere, karbonoaren konbinazio-aukeretatik abiatuz eta erregai fosilak lortzearen eta erabiltzearen problemak aztertuz. 10. Ikasitako higidurei buruzko problemak ebaztea, eguneroko bizimoduan interesgarriak diren egoera zinematikoak eta dinamikoak erabiliz, eta bide-segurtasunari buruzko neurrien premia justifikatuz. 11. Egoera dinamikoak azaltzea testuinguru errealean, objektuei eta sistemei beren arteko harremanen ondorioz eragiten dieten indarrak identifikatuz, eta higidura
--	--

	kantitatea kontserbatzearen printzipioa aplikatuz. 12. Energia-transformazioari buruzko problema teoriko-praktikoak ebaztea, lan eta bero kontzeptuak eta energiarekiko harremanak erabiliz, bai eta energiaren kontserbazio-eta transformazio-printzipioa ere. 13. Eguneroko fenomeno elektrikoak interpretatzea eta korrante jarraituko zirkuitu sinpleak eraikitzea, karga elektrikoaren modeloa erabiliz, esperimendu sinpleak eta magnitude elektriko nagusien neurketak eta kalkuluak eginez, eta elektrizitateak zientziaren eta teknologiaren garapenean eta pertsonen bizi-baldintzetan dituen eraginak balioetsiz.
--	---

ARAZO EGOERA

1. UNITATEA: Materiaren teoria atomiko-molekularra Arazoa: Nola jakin bi harri konposatu berdinez osatuta dauden? Testuingurua: Laborategi batera meategi batean aurkitutako bi harri bitxi eraman dituzte. Ez dakite hauek konposatu berdinez osatuta dauden edo ez. Bi harri bitxi hauen elementuen pisua ezaguna da. Azken ataza: Nola jakin dezakegu konposatu berdinez osatuta dauden?	
2. UNITATEA: . Atomoa eta haren loturak Arazoa: Zerren ondorio dira materialen propietateak? Testuingurua: Garbiketa produktuak sintetizatzen dituen fabrika batean produktu berri bat asmatu dute. Erreakzioaren azpiproduktu bezala azido klorhidrikoa dagoela ikusi denez, kezka zabaldu da enpresaren zuzendarien artean. Azken ataza: Konposatu hau solidoa, likidoa edo gasa izango da giro tenperaturan? Zein kasutan izango litzakete arriskutsuena?	
3. UNITATEA: Transformazio kimikoen azterketa Arazoa: Nola kalkulatu dezakegu erreakzio batean zein den lortuko dugun produktu kantitatea? Eta errendimendua? Testuingurua: $O_3 + NO \rightarrow O_2 + NO_2$ erreakzioa burutu da laborategi batean. 10 gramo O_3 eta 7 gramo NO erreakzionarazi dira. Azken ataza: Kalkuluak burutu.	
4. UNITATEA: Nahasteak eta disoluzioak Arazoa: Laborategian disoluzio komertzial bat daukagu eta ez da guk nahi dugun kontzentraziokoa.	

Testuingurua: Laborategian erreakzio kimiko bat burutzeko ezinbestekoa den produktu bat erosi dugu. Produktuaren etiketan ikusi dugu honen dentsitatea 1,23 g/ml eta kontzentrazioa masan %56 dela.

Azken ataza: Disoluzio horretatik abiatuta nola lor dezakegu 3M den disoluzio bat?

- 5. UNITATEA: Zinematika

Arazoa: Zer egin behar da zure lasterketa zehaztasunez eta doitasunez neurtzeko? Nola neur daiteke partehartzaile bakoitzaren abiadura? Nola adierazten dira datuak? Galdera horiei erantzuteko, esperimentu bat diseinatuko duzu taldekide guztien abiadura zehaztasunez eta doitasunez neurtzeko.

Testuingurua: 10 km-ko lasterketa batean parte hartu baduzu, komeni zaizu zure abiadura (erritmoa) jakitea, beste korrikalariekin alderatzeko.

Azken ataza: Arazo egoeran planteatutako galderak erantzungo dituen txostena sortu.

- 6. UNITATEA: Dinamika

Arazoa eta testuingurua: Emakumezkoen kopako finaleko azken minutuan Errealako jokalaria bati falta bat egin diote porteriatik 25 m-tara. Eskuadra 2m-tara dagoela kontutan izanik, zein abiaduratan bota beharko du baloia porteriara sartzeko?

Azken ataza: 60º-ko angeluarekin emanek gero, zein izan beharko du baloiaren hasierako abiadura?

- 7. UNITATEA: Energia

Arazoa: Jolas parke batean errusiar mendi berri bat diseinatu dute. Errusiar mendi horretako ibilgailuari hasierako abiadura maximo bat eman zaio. Nahikoa izango da bukaerara iristeko?

Testuingurua: Hasierako abiadura maximoa 12 m/s-ko abiadura izango da. Hasierako altuera 8 m dira eta bukaerakoa 10 m.

Azken ataza: Kalkulatu matematikoki errusiar mendi hau egoki diseinatu dagoen.

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. EBALUAZIOA

1. MULTZOA. Eduki komunak
2. MULTZOA. Materiaren teoria atomiko-molekularra
 - a. Daltonen teoria atomiko-molekularra berrikustea. Gasen legeak: azterketa esperimentalak.
 - b. Avogadroren hipotesiak. Substantzia kantitatea eta haren unitatea, mola. Gas idealen egoeraren ekuazioa.
 - c. Formula enpirikoak eta molekularrak.
3. MULTZOA. Atomoa eta haren loturak
 - a. Thomsonen eta Rutherforden eredu atomikoak berrikustea. Banaketa elektronikoa maila energetikoetan. Espektoak eta Bohrren eredu atomikoa. Substantziak analizatzeko gaur egungo metodoak: Espektroskopia eta Espektrometria.
 - b. Sistema periodikoa eta konfigurazio elektronikoa.

c. Lotura ionikoa, kobalentea eta metalikoa. Molekula arteko loturak. Substantzien propietateak. d. Konposatu inorganikoen formulazioa eta nomenklatura, IUPACen arauak jarraituz.
2. EBALUAZIOA
4. MULTZOA. Transformazio kimikoen azterketa. a. Transformazio kimikoak: interpretazio mikroskopikoa. Erreakzioen estekiometria. Erreaktibo mugatzailea eta erreakzio baten errendimendua. b. Erreakzio termikoen energia: erreakzio exotermikoak eta endotermikoak. c. Gure gizartean interesgarriak diren erreakzio kimikoak, duten garrantzi biologikoagatik, industrialagatik edo ingurumen-eraginagatik. Kimikaren zeregina bizikaltatean eta etorkizun jasangarria eraikitzeko. 5. MULTZOA. Nahasteak eta disoluzioak a. Nahaste motak. b. Disoluzioak. c. Gasen legeak. d. Disoluzioen propietate koligatiboak.
3. EBALUAZIOA
6. MULTZOA. Zinematika a. Zinematika eguneroko bizitzan eta zientzia modernoaren sorreran. b. Galileok zinematikaren eta oro har zientziaren garapenari egindako ekarpenak. Erreferentzia- sistema inertzialak: Galileoren erlatibitatearen printzipioa. Higidura deskribatzeko behar diren magnitudeak. Parte hartzen duten magnitudeen izaera bektoriala. c. Higidura zuzen uniformeki azeleratua eta higidura zirkular uniformeki azeleratua. d. Higidura zuzen uniformearen eta higidura zuzen uniformeki azeleratuaren konposizioa: tiro horizontala eta tiro zeiharra. e. Higidura harmoniko sinplearen sarrera. Magnitude bereizgarriak: periodoa, maiztasuna, anplitudea. f. Bide-hezkuntza; problema interesgarriak: erreakzio-denbora bisuala, frenatze-espazioa, abiaduraren eragina talka batean, etab. g. Aztertutako higidura batzuen tratamendu esperimentalak. 7. MULTZOA. Dinamika. a. Fisika aristoteliko-eskolastikoaren indar kontzeptua eta indar kontzeptua elkarrekintza gisa. b. Newtonen dinamikaren legeak. Higidura kantitatea eta kontserbazio-printzipioa. c. Higidura zirkular uniformearen dinamika. d. Grabitazio unibertsalaren legea.

- e. Egoera dinamiko interesgarri batzuk: pisua, marruskadura-indarrak, tentsioak eta indar elastikoak.
- f. Tratamendu esperimentalaren egoera dinamikoetan.

8. MULTZOA. Energia

- a. Energia, lan eta bero kontzeptuak eta haien arteko erlazioak. Efikazia, lana gauzatzean. Potentzia. Energia formak.
- b. Sistema kontserbakorrak. Energiaren kontserbazioa eta transformazioa. Termodinamikaren lehen printzipioa. Energiaren degradazioa.
- c. Higidura harmoniko sinplearen energia zinetikoa eta potentziala.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA: Eduki komunak.
2. MULTZOA: Materiaren teoria atomiko-molekularra.
3. MULTZOA: Atomoa eta haren lotura.
4. MULTZOA: Transformazio kimikoen azterketa.
5. MULTZOA: Nahasteak eta disoluzioak.
6. MULTZOA: Zinematika.
7. MULTZOA: Dinamika.
8. MULTZOA: Energia.

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Apunteak, fotokopiak, ariketak eta testu mota desberdinak ikasleen laguntzarako.
- Erreferentzia bezala erabiliko den testu liburua: FISIKA ETA KIMIKA BATXILERGOA; ARGITALETXEA: Giltza-Edebé
- IKT-ei dagokionez, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduera guztiak. Ikasleek bertan izango dute eskura behar duten material guztia (testuak, bideoak, eskemak, material gehigarria eta abar). Fitxategiak PDF formatuan igoko dira eta bideoak URL baten bidez txertatuko dira. Ikasleen lanak plataforma birtualaren bidez jasoko dira.

Ikasleen lanerako Drive-ek eskaitzen dituen programa kolaboratiboak erabiliko dira eta ekoizpena testu formatuan (Word edo Google docs) eskatuko zaie. Bestalde, mapa kontzeptualak, eskemak eta infografiak egiteko bestelako baliabideak erabiliko dira (Canva, Creately, Bubbl-us).

Pantemia egoeran Meet eta G-Suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, biak Alexia Classroom-en txertatuak, ikasleek ikasgaia etxetik jarrai dezaten eta material guztia eskura izan dezaten.

TADEKATZEAK

Orokorrean lanak bakarka burutu beharko dituzte, laborategian ezik, bertan bi edo hiru taldeetan banatuko dira.

ESPAZIO-DEBOREN ANTOLAKETA

- Fisika eta kimika jakintza teorikoetan oinarrituta dagoen zientzia esperimentalaren heinean, laborategi esperimentazio eta hezkuntzarekin eskutik joan behar du. Horren ondorioz, ikas-gela erabiltzeaz gain Oiertza ikastolak eskuragarri duen Kimika laborategia erabiliko da. Bertan, ikaskuntza prozesu motibagarria, erreala eta kooperatiboa bultzatuko da.

Aipatu den bezala, ikas-gela izango da elkargune nagusia, non, irakasleak ohiko klase magistralak emango dituen.

DENBORALIZAZIOA			
Gaia	Multzoa	Saio kopurua	Ebaluazioa
Materiaren teoria atomiko-molekularra	II. MULTZOA	14	1. Ebaluazioa
Atomoa eta haren loturak	III. MULTZOA	14	
Transformazio kimikoen azterketa	IV. MULTZOA	14	2. Ebaluazioa
Nahasteak eta disoluzioak	V. MULTZOA	14	
Zinematika	VI. MULTZOA	14	3. Ebaluazioa

Dinamika	VII. MULTZOA	14	
Energia	VIII. MULTZOA	14	

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna erabiliko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.
- Ikasleei agindutako ariketak eta problemak talde osoaren aurrean zuzenduko ditu.
- Talde dinamika egokia egoteaz arduratuko da, non, ikaslea eroso eta zaindua sentitzea izango den helburu nagusia.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Indibidualki zein taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasteko gaitasuna garatzea, jarduerak egitean eta edukiak barneratzeko orduan teknika egokiak erabiltzeko.
- Independentzia eta autonomia propioa garatzea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Idatzizko azterketetan kontuan izango dira eta baloratu ere : azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna, nomenklatura eta formulazioa eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	Ebaluazio bakoitzean idatzizko bi azterketa egingo dira. Kurtsoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ebaluazio guztietan berreskurapena egongo da, baita nota igotzeko aukera ere. Ebaluazio bakoitzean eginiko azterketa guztiak gaituta egon beharra daukate, zati bat edo biak suspendituta izanez gero berreskuratzeko aukera izango dute ebaluazio bukaeran.	
Berreskurapenean gaitutzea lortzen ez badute, ohiko deialdira joan beharko dute gaituta ez dauzkaten zatiekin. Ebaluazio bateko zati bat soilik izanez gero, ebaluazio guztiarekin joan beharko dute.	
Ohiko deialdian dagozkien zatiak gaitutzea lortzen ez badute, ez ohiko deialdira joan beharko dute ikasturte guztiarekin.	

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Eta:	BATXILERGOA	Zikloa/maila	1. MAILA
Arloa/irakasgaia:	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK I		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak	1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza-adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertzeko metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapena eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin. 2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuko ohiko arazoak konpontzeko. 3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agirien bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeko. 4. Produkzio-sistemako osagaien bereizketa sistemikoa egitea eta haiengandik lortu beharreko objektu, sistema edo zerbitzuekin erlazionatzea, erabiltzen diren baliabideak eta iritsiko den azken emaitza optimizatzea.		
Irakasleak:	Iñigo Jaka Ruiz	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Aplikazioak instalatu eta konfiguratzeko. Lan horretan segurtasun aktiboa eta pasiboa zainduko du, elkarrekin konektatuta eta Internetera zabaldua dauden sistema informatikoei segurtasuna emateko, batetik, eta datu pertsonalak egoki babestu ahal izateko, bestetik. 2. Aplikazio-programak diseinatu eta soluzioak garatzea, programazio-inguruneak erabiliz, garrantzia izan baduten problemak irtenbidea emateko. 3. Multimedia-elementuak edo webarenak berarenak sortu eta aldatzea, emandako espezifikazioak betez, planteatutako problemari soluzioa emateko. Horretarako, mota bakoitzerako egokienak diren teknikak baliatuko ditu eta erabiltzen dituen iturrien jabetza intelektuala errespetatuko du. 4. Eduki digitalak argitaratzeko web-inguruneak garatu eta diseinatzea, informazioa argitaratzen eskuragarritasun-estandarrek aplikatuz,	• Segurtasunez, pribatutasunari eutsiz eta arduraz sartzea informazio digitala trukatzeko eta argitaratzeko den zerbitzuetan. • Segurtasun aktiboko eta pasiboko neurriak hartzea informazioa trukatzeko eta datuak babesteko. • Aplikazio-programa txikiak egitea programazio-lengoaia jakin batean, benetako problema bati konponbidea emateko.

elkarrekintzarako aukera ematen duten bitartekoak erabiliz eta multimedia-elementuak sartzea errazten duten formatuak erabiliz, produktuak edo zerbitzuak komunikatzeko. 5. Baliabide digitalen erabilerari dagokionez, zer behar dituen aztertzea, lortu nahi duen helbururako tresnarik egokiena aukeratzeko. Horretarako, irizpide kritiko aztertuko ditu eskura dauden soluzioak eta tresna digitalak. 6. Parte aktiboa izatea, eta lankidetzako aplikazioak erabiltzea Interneten, sare sozial birtualetan, informazio-igortzaile eta -hartzaile moduan, ekimen komunak sustatzeko. Lan horretan, errespetuz eta elkarlanean jardungo du, produktu kolektiboak sortu ahal izan daitezkeen.	
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
7	1. Ordenagailuaren Hardwarea.	5	5. Ordenagailuaren Softwarea.	4	8. Informazioaren gizartea eta teknologia berriak.
2	2. Internet.		➤ <i>Software askea</i>	27	9. Proiektua: mugikorrentzat aplikazio bat sortu.
10	3. Programazioaren oinarria: algoritmoak.	14	6. Mugikorrentzat aplikazioak sortzeko programa: App Inventor.		
12	4. Grafiko bektorialak lantzeko programak: Inkscape.	12	7. Grafiko askeen sortzaileak eta irudien tratamendua: Gimp.		

METODOLOGIA

Erabiltzen den metodologia, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, IKTren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.

Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.

Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira:

- Ikasleek gaien azalpenak eta teoria eskuragarri izango dituzte, beraien kabuz lantzeko eta ikasteko.
- Irakasleak puntu zailenak edo zalantza gehiago sortu dituztenak azalduko ditu.
- Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan klasearen aurrean aurkeztuko dira eta beste ikasleek, rubriken bitartez, ebaluatuko dituzte (koebaluazioa). Irakasleak ere lan hauek ebaluatuko ditu (heteroebaluaketa).
- Talde-lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten.

BALIABIDEAK:

Alexia Classroom (moodle): ikasgai guztia plataforman dago, unitate didaktikoetan antolatuta, eta bertan azalpenak, loturak, zereginak, tailerrak, galdetegiak eta abar daude ikasleek lantzeko eta ebaluatzeko. Ez dago apunterik paperean.

Internet: eskatzen diren zereginak lantzeko internetera jotzeko aukera izango dute, ikerketa bultzatuz. Bertan dauden tutorialak eta Youtubeko bideoak erabiliko dituzte.

Programa informatikoak: programa anitzak erabiliko dira, gaiaren arabera. Nagusienak hauek izango dira: Raptor algoritmoak lantzeko, Gimp irudiak editatzeko, Inkscape irudi bektorialak sortzeko, App Inventor mugikorrentzako aplikazioak garatzeko. Hauek aparte, ikasleek beste programa batuk erabili behar dituzte eskatzen diren proiektuak eta lanak burutzeko: testu-editoreak (word, google

dokumentuak...), aurkezpen programak (Power point, google aurkezpenak...), bideo editoreak (Wevideo), soinu-editoreak (Audacity), eta abar. Ikasleen lanak gehienetan koebalatu egingo dira moodle-eko tailerraren bitartez.

Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, Alexia Classroom ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
• Ikasleek egingo dituzten lanak eta proiektuak klase aurrean aurkeztuko dira eta beraien gelakideek kalifikatuko dituzte (koebalazioa). • Irakasleak ere klaseko lanak eta proiektuak ebaluatuko ditu (heteroebalazioa). • 1. eta 2. ebaluazioan emandako gaien kontrola egingo dute eta kalifikaziorako balio izango du. • 3. ebaluazioan proiektu bakarra egingo da, kurtsoaren eduki guztiak biltzen dituen, eta hortik aterako da ebaluazioaren nota. • Ikasleek gelan erakutsitako interesa eta portaera ebaluatuko dira. • Ikasturteko nota jartzeko ebaluazioetan izan dituzten notak kontuan hartuko dira, baina 3. ebaluazioaren notak, proiektuarena, garrantzi handiena izango du.	• Kalifikazio bakoitzaren pisua ebaluazioaren notarako aurkeztutako lan-kopuruaren arabera da, baina hau izango litzateke, gutxi gorabehera: ➢ Koebalazioaren bitartez jarritako kalifikazioa notaren % 25 izango da. ➢ Heteroebalazioaren bitartez jarritako kalifikazioa notaren % 35 izango da. ➢ Kontrolaren kalifikazioa notaren % 25 izango da. ➢ Interesa eta jarrera notaren % 15 izango dira. • 3. ebaluazioko nota proiektuarena izango da, bertan aurkezten den formularen arabera, non ikasleen inbertsioak, aurkezpenak, marketing kanpaina eta klasean egindako lana kontuan hartzen diren.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• 1. eta 2. ebaluazioak ez badira gainditzen, ebaluazioko kontrola berriro egin beharko dute eta ebaluazioko lanak kontuan hartuko dira. Halere, 3. ebaluazioaren proiektuak jasotzen ditu kurtsoan emango ditugun gaiak, beraz ebaluazio jarraia dela esan dezakegu, eta azkeneko honek izango du garrantzi handiena azken notan. • 3. ebaluazioa errekuuperatzeko lan edo azterketa bat egin beharko dute.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	Oiartzo Batxilergo Ikastola	kodea:	
etapa:	Batxilergoa	zikloa/maila	1. maila
arloa/irakasgaia:	Frantsesa I		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia, konpetentzia sozial eta zibikoa, arterako konpetentzia, konpetentzia motorra		
irakasleak:		ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. -Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, ohiko komunikazio egoeretakoak, ikasleen gaitasunekin eta interesekin bat datozenak, bai eta haiek interpretatzea ere, erantzun egokia eman ahal izateko hainbat komunikazio-egoerari.	- Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta interpretatzea. - Ahozko harremanetan gogotsu parte hartzea, ikasteko eta ikasgelako gizarte-harremanak lantzeko.
2. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta interaktuatzea, modu gutxi-asko autonomoan eta errespetu- eta lankidetzaz-jarrerarekin, modu egoki, koherente eta zuzenean erantzun ahal izateko ohiko komunikazio beharrei.	- Idatzizko eta ahozko testuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea. - Idatzizko eta ahozko testuak ekoiztea, norberaren interesekoak eta gaur egungoak. - Hizkuntzaren oinarriko arauak testuetan aplikatzea.
3. Atzerriko hizkuntzaren ezaugarri sozial eta	

kultural nagusiak ezagutzea eta interpretatzea, estereotipoak eta balio-judizioak saihestuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren aurrean errespetua eta jarrera positiboa izateko. 4. Atzerriko hizkuntza eta hizkuntzak oro har ontzat jotzea beste jatorri, hizkuntza eta kultura batzuetako pertsonen artean komunikatzeko eta ulertzeko, eta esperientzia eta harreman pertsonalak antolatzeke beste modu batzuk ezagutzeko. 5. Atzerriko hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea ahozko nahiz idatzizko testuak hobeto ulertu, aztertu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean. 6. Idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testuez gozatzea, era horretan mundua eta gizakia ulertzeko, hizkuntza aberasteko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko. 7. IKTak erabiltzea gero eta modu autonomo eta kritikoagoan, informazioa eskuratu, komunikatu eta atzerriko hizkuntzan lankidetzan jarduteko. 8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko.	-Kulturartekotasuna lantzeko gaitasuna edukitzea.
---	--

ARAZO EGOERA [arazo egoeraren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik errelevanteenak agertuko dira]

- 1. UNITATEA: La famille en voie de changement

Arazoa: Zer nolako familia da zurea? Bakarra al da?

Testuingurua: Familia ereduak aldatzen ari diren honetan, gazteek beste errealitateak ezagutzea garrantzitsua da, munduarekiko eta jendartearekiko duten ikuspegia zabaltzeko eta aberasteko.

Azken ataza: ezkondu nahi duen bikote baten ezkontzako prestaketetan ari den agentzia bateko langile bihurtuko dira ikasleak. Laguntza eskaini ondotik, gonbidapenak sortu beharko dituzte adostutako datuekin.

- 2. UNITATEA: La “cyber-société”

Arazoa: Mundu errealean ala birtualean bizi gara?

Testuingurua: Teknologia gaur egungo jendartearen duten garrantzia ikusi eta honen abantaila eta arriskuez ohartzea nahitaezkoa da, teknologia horien erabilera egokia egin ahal izateko.

Azken ataza: Teknologiaren eta sare sozialen inguruan kontzientziario kanpaina bat sortu beharko dute ikasleek, taldeka.

- 3. UNITATEA: Le rôle du bénévolat

Arazoa: Zeren truke egiten ditugu ekintza onak? Zergatik?

Testuingurua: Diruak zentraltasuna duen gizartearen bizi gara, eta garrantzitsua da gazteek boluntariotza zer den jakitea, baita zergatik eta zertarako egiten den ere. Horretarako dago prestaturik ondoko ataza, boluntariotzaren aurpegi ezberdinak ezagutu eta lantzeko.

Azken ataza: GKE baten edo elkarte baten aldeko diru bilketa bat antolatzea, edo gisa horretako ekimen batean parte hartzea.

- 4. UNITATEA: Une culture fière de son patrimoine

Arazoa: Ezagutzen al duzu frantziar kultura eta bere jatorria?

Testuingurua: Munduko kultura desberdinak eta hauen sinboloak ezagutzea garrantzitsua da ikasle bakoitzaren kultur jakintza zabaltzeko, horrekin batera baita bere munduarekiko ikuspegia ere. Sare sozialetan dominatzaile den kulturatik haratago ikasleen jakintza elikatzea du helburu unitate honek.

Azken ataza: Frantziako UNESCOko monumentuen inguruko aurkezpen bat egingo dute ikasleek taldeka, gainontzeko ikaskideen aurrean.

- 5.UNITATEA: La musique francophone contemporaine

Arazoa: Edith Piaf ezagutzen duzu? Eta bere ondorengoak?

Testuingurua: Chanson Française delakoak mundu mailako arrakasta lortu zuen XX. Mendean. Garai horren ondorengo eta gaur egungo musikagintza zein den erakustea da unitate honen xedea. Horregatik, ikasleek beraien garaiko musika zein den ikusiko dute, beraien gustuekin konparatu ahal izateko, ondotik.

Azken ataza: Ikasleek musikaren inguruko sariketa bat antolatuko dute ikasgelan, “Victoires de la musique”.

- 6. UNITATEA: Le septième art

Arazoa: Zer da zinema? Zertarako balio du?

Testuingurua: Irudi zaparrada betean bizi diren gazteak irudi horien nondik norakoak nondik datozen ikusiko dute unitatean, gaur egungo bideo laburren sorburua zein den identifikatuko dute, ondorioz. Horrela, zazpigarren artea eta beraien egunekoaren arteko zubiak eraikiko dituzte.

Azken ataza: Serie edo filma frantses baten eszena bat grabatuko dute ikasleek taldeka.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

- 1. UNITATEA: La famille en voie de changement

1.1 La vie de couple: nouvelles tendances

1.2 Familles monoparentales, familles recomposées

1.3. Grands-parents, parents et enfants: soucis et problèmes

1.4 Phonétique

- 2. UNITATEA: La “cyber-société”

2.1 Comment la technologie facilite la vie quotidienne

2.2 Quels dangers la cyber-société pose-t-elle?

2.3 Qui sont les cybernautes?

2.4 Phonétique

- 3. UNITATEA: Le rôle du bénévolat

3.1 Qui sont et que font les bénévoles?

3.2 Le bénévolat: quelle valeur pour ceux qui sont aidés?

3.3 Le bénévolat: quelle valeur pour ceux qui aident?

3.4 Phonétique

- 4. UNITATEA: Une culture fière de son patrimoine

4.1 Le patrimoine sur le plan national, régional et local

4.2 Le patrimoine et le tourisme

4.3 Comment le patrimoine reflète la culture

4.4 Phonétique

- 5. UNITATEA: La musique francophone contemporaine

5.1 La diversité de la musique francophone contemporaine

5.2 Qui écoute et apprécie la musique francophone contemporaine?

5.3 Comment sauvegarder la musique francophone contemporaine?

5.4 Phonétique

- 6. UNITATEA: Le septième art

6.1 Pourquoi le septième art?

6.2 Évolution du cinéma: les grandes lignes

6.3 Le cinéma: une passion nationale

6.4 Phonétique

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

EDUKIEN ANTOLAKETA:

1. MULTZOA. Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunak

2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

3. MULTZOA. Diskurtsoen aniztasuna: irakurtzea eta idaztea

4. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

5. MULTZOA. Literatura-diskurtsoa

6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.
- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

Testu liburua: Échanges 1 (baita online liburua ere).

Horrez gain, irakasleak sortutako txostena erabiliko da. Filmak eta abestiak frantsesez. CD eta Internet.

IKT-ei dagokionean, Alexia Classroom izango da ikasgela birtuala eta bertatik bideratuko dira eduki eta jarduerak, edukiak pdf-n igoko dira. Ikasmaterial guztia eskura izango dute plataforman (testuak, bideoak, material gehigarria eta abar).

Ikasleen lanerako programa kolaboratiboak erabiliko dira (Drive). Ekoizpena testu formatuan (word edo Google docs) eta aurkezpen formatuan (edozein plataforma, ppt, prezi, google) eskatuko zaie. Ikasleen lanak korreo elektronikoz jasoko dira.

Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko, materiala korreo ere bidaltzen ahal zaie.

IKASLEEN TALDEKATZEA:

Egunerokoan ikasleek banaka jardungo dute, irakasleak emandako azalpenak ulertu beharko dituzte, eta ondoren ariketak egin.

Talde lanak bultzatuko dira, ariketak taldeka eta binaka ere egingo dituzte, horrela talde lana, kooperatibismoa eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko, beti ere ariketaren izaera kontuan izanda.

ESPAZIO-DENBOREN ANTOLAKETA:

- Egunerokoan ikasgela erabiliko da lanerako. Talde lanak burutzeko orduan, aldiz, IKT gela ere erabiliko da behar izanez gero. Ariketa osagarriak egiterakoan beste hainbat gela ere erabiliko dira, hala nola, aretoa.
- Astean lau saio edukiko dira. Urtea ebaluazioko eta unitateka eta ebaluaketaka antolaturik egongo da. Halaber, edukiak lantzeko: hasiera fasea, garapen fasea eta aplikazio eta komunikazio faseak burutuko dira.

IRAKASLEEN EGINKIZUNA:

- Irakasleen arreta bereganatzen eta dituzten aurre-ezagutzak aktibatzen saiatuko da unitatean sakontzen hasi baino lehen.
- Material desberdinetan oinarrituta (testu liburuak, testuak, bideoak...), azalduko ditu unitate didaktikoak. Hainbat euskarri mota erabiltzen ahalko ditu horretarako (ppt, prezi, youtube...).
- Emandakoa aplikazio praktikoekin harremanetan jarriko du, eta gaiak errealitatearekin lotuko ditu.

IKASLEEN EGINKIZUNA:

- Ikasleak azalpena jarraitu eta ulertu behar du, horretarako ariketak eginez. Horretaz gain, ikasleak agindutako lanak eta irakurketak egin behar ditu eskatzen zaizkionerako.
- Edozein duda izanez gero, irakasleari galdetu beharko diote, beraien ikaskuntza prozesua ahalik eta osoena izan dadin.
- Indibidualki zein taldean egingo dute lan, lan taldean aritzeko gaitasuna garatzeko.
- Edukiak barneratzeko teknika egokienak martxan jarri beharko dituzte.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
- Unitate bakoitza idatzizko froga baten bidez ebaluatuko da eta eta azterketa bat ebaluazioaren amaieran. - Etxerako bidaltzen diren lanak eta klasean egindakoak pisu handi edukiko dute. - Gaiaren arabera zehaztuko dira ahozko aurkezpen eta frogak. - Gaiarekiko aipatutako jarrera aktiboa kontuan hartuko da. -Ebaluazioko proiektuak ere bere pisua edukiko du.	- Ebaluazioan zehar egindako lanen batez bestekoari (idatzizko nahiz ahozkoak) erreparatuko zaio, kontrolak ere nota honetan sartuko dira, lan hauek notaren %40 balioko dute. -Ebaluazio bukaerako azterketak %40ko balioa izango du. - Ebaluazioko proiektuak beste %20a balioko du.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...]	
Suspenditutako kontrol partzialak ebaluaketa azterketan berreskuratzeko ez da aukerarik emango, ikasgai jarrai denez gero. Hau ez bada gaitzitzen, hurrengo ebaluaketaren bidez gaitzitzeko aukera izango da (1. eta 2. ebaluazioetan).3.ebaluazioa suspenditzekotan, azterketa finalera aurkeztu beharko du ikasleak. Plagioak lanaren gutxiegiko nota dakar zuzenean. Nota orokorra igo nahi duen ikasleak kurtso osoaren azterketa egin beharko du.	

OHARRAK

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA	Kodea:	013379
Eta:	BATXILERGOA	Zikloa/maila:	1. MAILA
Arloa/irakasgaia:	KULTURA ZIENTIFIKOA		
Osatutako arloak/irakasgaiak			
Diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Zientzia-jakintzak egoki erabilia eta arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritiko hartzea natura-ingurunearen gaineko erabakiak eta giza jardueren ingurune horretan eragiten dituzten aldaketei buruzkoak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan jardutea gisa horretan, norberaren eta gizartearen bizitza hobetzeko eta ingurunea zaindu eta hobetzeko. 2. Arazo zientifikoak identifikatzea eta dokumentazio eta esperimendazio ikerketa txikiak egitea egoera problematikoak lantzeko, zientzia-jardueraren berezko trebetasunak eta jokabideak egoki balioetsi, erabili eta erakutsita, egoera problematiko horiek konpontzeko eta ebidentziak lortzeko, erabaki arduratsuak hartu aurretik. 3. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta iragartzea, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak aztertzea jakintza zientifiko modu koherente, egoki eta zuzen batean erabilia testuinguru pertsonal eta sozialetan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegiatik ulertzeko. 4. Zientzien oinarriko kontzeptuak mundu naturalaren sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, eta horiei zentzua dakarkieten lege, eredu eta teoriaren bidez antolatzea lotura horiek, errealitatearen interpretazio zientifikoak eta izaera zientifikorik ez dutenak bereiztea, eta onartzea zientziak enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egiten dituela, zientziaren izaera eta emaitzak ulertzeko.		
Irakasleak:	Jon Xabin Urretabizkaia Oiarbide	Ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Jakintza zientifikoak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientziak zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko. 2. Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifiko saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren	• Ikerlan dokumentalak eta/edo esperimendalak diseinatzea eta egitea, lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz. • Lan zientifikoaren bidez garatzea lan zientifikoaren oinarriko estrategiak eta jarrerak. • Iritzi propioa izatea eta hizkuntza zientifiko egokia eta testuinguruarekin bat datorrena erabiltzea, lan dokumentalaren eta/edo esperimendalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifiko bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta denetarik euskarriak erabiliz. • Laborategiko edo landako oinarriko materiala eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala erabiltzea.

barruan ekin ahal izateko interes zientifikoa edo soziala duten eguneroko egoerei. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko gizarte eta ingurumen arloko gai zientifiko eta teknologikoei buruz. 4. Nork bere iritzien bidez arrazoitzea, eztabaidatzea eta balioestea jakintza zientifikoei buruzko proposamenak eta aplikazioak, jarrera zientifikoak eta balio sozialak erabiliz, pertsona moduan hazteko, eta pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzea hobetzeko. 5. Ideia zientifikoak etengabe eraikiz doazela ohartzea –testuinguru kultural, sozial eta ekonomikoaren mende–, debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioetsiz, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziaren dimentsio kulturalaz konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.	• Zientziak gaur-gaurko gai batean zer ekarpen egin duen ikertzea, zientziak teknologia-aurrerapenekin duen harremana balioetsiz, eta modu kolektiboan eraikitzen dela jakitea, haiei esker bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobek direla aitortuz, eta haien mugez ohartuz. • Lurra nola eratu zen deskribatzea, eta Lurraren geruzen zergatia justifikatzea, eta fenomeno geologiko nagusiak plaken tektonika erabiliz azaltzea. • Lurreko biziaren jatorria eta bilakaera deskribatzea, eta Darwinen hautespen naturalaren aldeko frogak finkatzea, izaki bizidunen bilakaera azaltzeko, eta batez ere gure espeziearena. • Biziaren jatorria edo Lurraren eraketa moduko gaiei emandako azalpen zientifikoak aztertzea, arrazoi bide hipotetiko-deduktiboa azpimarratuz, bai eta frogen balioa eta gizartearen eragina ere, iritzietan edo sinesmenetan oinarritutakoetatik bereiziz. • Zientziak eta teknologiak osasunaren arloan egindako zenbait ekarpen eta haiek abiarazteko orduan testuinguru politiko-sozialak izandako garrantzia aztertzea, ekonomiaren eta gizartearen aldetik dauden abantailak eta oztopoak kontuan hartuz, eta medikuntza zientifikoa bereiziz bestelako jardun batzuetatik. • Ingeniaritza genetikoaren eta enbrionarioaren aplikazioak balioestea, haren oinarri zientifikoak identifikatuz, bai eta Bioetika Batzorde baten premia justifikatuz ere, haren mugak zehaztuz giza bizitzaren kudeaketa-esparru arduratsu batean. • Informazioko, komunikazioko, aisiako eta sormeneko tresna teknologiko batzuek zer erabilera praktiko eta zer ondorio indibidual eta sozial dituzten ohartzea, kontsumo-ohituretan eta gizarte-harremanetan duten eragina balioetsiz.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
EDUKI ESPEZIFIKOAK 1. Zer da zientzia 2. Gure planeta: Lurra 3. Biziaren eta gizakiaren jatorria (I) ZEHARKAKO PROZEDURAK • Metodo zientifikoa: bideoa • Lurra: infografiak • Biziaren jatorria: podcast	EDUKI ESPEZIFIKOAK 3. Biziaren eta gizakiaren jatorria (II) 4. Gehiago bizi, hobeki bizi 5. Iraultza genetiko (I) ZEHARKAKO PROZEDURAK • Giza eboluzioa: aurkezpena • Osasuna: Txosten zientifikoa	EDUKI ESPEZIFIKOAK 6. Iraultza genetiko (II) 7. Bioteknologia 8. Nora goaz? Homo-teknologikoa ZEHARKAKO PROZEDURAK • Iraultza genetiko: Narrazio digitala • Teknologia berriak: sitea

METODOLOGIA

- Tokiko eta arazo orokorrak konpontzeko eta garapen jasagarri bat lortzeko ikerkuntzak duen garrantzia eta ikerlanak burutzeko beharrezkoak diren metodologiak eta baliabideak erakutsiko zaizkie ikasleei, idatziz zein ahoz. Metodologia eta baliabide hauek urte osoan garatu eta aurkeztu beharko dituzte ikerlan desberdinen bidez.

- Gai espezifiko bakoitzaren hasieran ikasleek dakitena aztertzeko eta ikasleengan interesa pizteko galdekizunak pasako dira.
- Ikasleei informazio idatzia apunteen bidez, zein ahozko informazioa aurkezpenen bidez, emango zaie gai espezifikoari buruz.
- Alor guztietan, eta euskarri moduan ikus-entzuteko materiala ere erabiliko da.
- Bibliografia edota errebista zientifikotatik ateratako artikulak banatuko zaizkie gaiari dagokionean. Ikasleek ere informazioa bilatzen, identifikatzen eta hautatzen ikasi beharko dute.
- Ikerketa, hausnarketa eta ekoizpena nagusiak izango dira gaien, Internet sareak eskaintzen duen aukeraz baliatuz.
- Ikasle taldeek informazioa ordenatu eta azaldu beharko dute, aurkezpenen bidez. Gaiari eta aurkezpenari buruz eztabaidak sortuko dira.
- Teknologia berriak ematen dituzten baliabideak erabiliko dira gai ezberdinak lantzeko, bai irakas prozesuan baita ikas prozesuan ere.

BALIABIDEAK:

Apunteak: arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako eta ikastolaren ikaskuntza-plataforma digitalean jaso diren apunten oinarritua dago.

Internet: irakasgaiaren helburuetako bat Interneten informazioa bilatzen, arazten eta interpretatzen ikas dezan izaki, proposatuko zaizkion hainbat lan burutzeko iturri honetatik eskuratu beharko ditu hainbat baliabide.

Ikastolaren ikaskuntza-plataforma digitala: bertan apunteak zintzilikatuta egoteaz gain, ikasleak bete beharreko hainbat galdetegi eta jardura topatuko ditu.

Programa informatikoak: bideo muntaiak egiteko *WeVideo* lizentzia eskainiko zaie taldeei; infografia *Canva* web aplikazioarekin egingo dute; audio muntaiak egiteko *Beautiful Audio Editor* erabiliko dugu eta aurkezpena, txostenak eta sitea egiteko, *Google Workspace* plataformako Aurkezpenak, Dokumentuak eta Google Sites tresnak erabiliko dira.

Google Meet bitartez konfinatuta dauden ikasleekin komunikatu eta klaseak emango zaizkie, ikastolaren ikaskuntza-plataforma digitala ezagutzak transmititzeko ardatz hartuta.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
• Hiru ebaluazio partzial egingo dira. • Ebaluazio bakoitzean egindako banakako edo taldekako lanak ebaluatuko dira. • Jarrera kontuan hartuko da. • Gainera, urte guztian zehar egindako taldekako ikerketa lanak garrantzia handia izango dute.	– Kalifikazioaren gehiengoa prozedurazko ebaluazioari dagokio. Prozedurazko lanak direnak, galdetegiak zein taldekako lanak, entregatu beharrekoak izango dira kurtsoaren batz bestekoa egin ahal izateko. – Kontzeptuak edo edukiak-baliabideak eta jarrera ere neurtuko dira.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
• Ebaluazio bakoitzean egindako lanak berregiteko eta hobetzeko aukera izango du ikasleak ebaluazio-epearen barne. • Ikasturte bukaeran kurtsoa nota globala hobetzeko, eta gaintitu ez duenak gaintitzeko, lan osagarri baten proposamena egingo zaie.	

OHARRAK

--

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

ikastetxea:	OIARTZO BATXILLERGO IKASTOLA	kodea:	013379
etapa:	Batxillergoa	zikloa/maila	1
arloa/irakasgaia:	Anatomia Aplikatua		
osatutako arloak/irakasgaiak	-----		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak	1. Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia. 2. Matematikarako konpetentzia. 3. Zientziarako konpetentzia. 4. Teknologiarako konpetentzia. 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa. 6. Arterako konpetentzia. 7. Konpetentzia motorra.		
irakasleak:	Jone Gallastegi Zapirain / Olaia Zabaleta Lasarte	ikasturtea:	2021-2022

Zeharkako konpetentziak

1. - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. - Elkarbizitzarako konpetentzia
4. - Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. - Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
1. Giza organismoari buruzko jakintza erabiltzea, gorputzaren funtzionamendua aztertuz eta bereiziz, batetik, anatomikoki eta fisiologikoki onargarria den lan fisikoa, eta, bestetik, osasunarentzat kaltegarria dena, arte-jarduerak egiteari buruzko erabakiak hartzeko eta osasunarekin lotutako eguneroko egoerei heltzeko. 2. Problema identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, bai eta ikerketa anatomiko-funtzional txikiak gauzatzea ere, bakarka edo taldeka, eta zientzien prozedurekin bat datozen estrategiak aplikatzea arte-	1. Ikerketarako trebetasun esperimental sinpleak aplikatzea, zientziaren prozedurekin koherenteak direnak, giza gorputzaren funtzionamenduari, osasunari eta motrizitateari buruzko problemak ebazteko. 2. Ikerketaren eta esperimentazioaren bidez garatzea lan zientifikoaren oinarriko estrategiak eta jarrerak. 3. Bere iritzia osatzea eta hizkuntza zientifiko egokia erabiltzea testuinguru zehatz batean, lan dokumentalak eta/edo esperimentalak eginez, informazio zientifikoa bilatuz,

jardunari buruzko egoera pertsonalak jorratzeko. 3. Informazio zientifikoa bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, giza gorputzak arte- jardueren aurrean duen funtzionamenduari buruzko lanak egiteko. 4. Azalpenezko eskemak egitea giza gorputzari buruz, zientziaren legeak betetzen dituen makro-egitura gisa, haren kontzeptuak, printzipioak, estrategiak, balioak eta jarrerak erabiliz oinarritzko prestakuntza zientifiko bat lortzeko, eta osasuna mantentzeko eta arte-jarduna hobetzeko aplikatzeko. 5. Anatomia zientziazat hartzea, arte-jardueretan dituen ekarpenak balioetsiz, pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartearen dituen ondorioak balioesteko.	hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta euskarri erabiliz. 4. Anatomia aplikatuaren ekarpena eta izaera kulturala balioestea, arte-jardunarekiko harremana aztertuz, eta bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetzeko balio duela aitortuz. 5. Giza gorputzaren batasun estrukturala eta funtzionala haren elementuen bidez interpretatzea, antolaketa-mailak eta bizi-funtzio nagusiak identifikatuz. 6. Ekintza motor batean parte hartzen duten energia-mekanismoak ezagutzea, eta energia nola kudeatzen den eta ekintza eraginkorrako nola egiten den argudiatzea. 7. Nutrizio-prozesuak deskribatzea, bakoitzaren egiturak eta jardun fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura azalduz. 8. Osasunari eta gorputzaren bidezko arte-jardunari mesede egiten dioten nutrizio-ohiturak balioestea, dieta osasungarri eta orekatu batekin lotuz, eta jokabide nutrizionalaren nahasterik ohikoenak eta haiek osasunean duten eragina identifikatuz. 9. Bihotz-biriketako sistemak gorputzaren bidezko arte-jardueren errendimenduan duen zerikusia identifikatzea, sistema horien arteko harremana ezagutuz. 10. Bihotz-biriketako sistema osasunarekin lotzea, bihotz-arnasako sistemarentzat eta fonazio- aparatuentzat osasungarriak diren ohiturak ezagutuz gorputzaren bidezko arte-jardueren ekintza motorretan eta eguneroko bizitzan. 11. Sistema neuroendokrinoak jardun fisikoan duen zeregina identifikatzea, giza organismoaren sistema guztien arteko harremana ezagutuz. 12. Gizakiaren lokomozio-sistemaren egitura eta funtzionamendua arte-jardueretako mugimenduetan deskribatzea, horretarako aplikatuz anatomiaren oinarri funtzionalak, fisiologia muskularra eta biomekanikaren oinarriak.
--	--

	13. Gorputzaren jarrerako, jarduerak egiteko eta entrenatzeko ohitura onak identifikatzea, osasunean duten eraginarekin lotuz. 14. Ohartzea gorputza eta mugimendua erabiltzen direla adierazteko eta komunikatzeko, adierazteko eta komunikatzeko gaitasunak hobetuz gorputzari buruzko jakintzaren bidez.
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

1. EBALUAZIOA
2. MULTZOA. Giza gorputzaren antolaketa a) Giza gorputzaren oinarritzko antolaketaren sarrera. Zelula. Oinarritzko ehunak. Organoak, sistema eta aparatuak. b) Oinarritzko bizi-funtzioak. c) Zelulen, ehunen, organoen eta aparatuen elementuak identifikatzea. d) Organoak eta aparatuak funtzioaren arabera sailkatzea. e) Gizakiaren oinarritzko egituren eta funtzioen eta arte-jardunen arteko erlazioa. f) Jarduera fisikoa eta arte-jarduna hobetzeko portaera-ohiturak. 3. MULTZOA: Energiaren ekarpen- eta erabilera-sistema a) Metabolismoaren sarrera: katabolismoa eta anabolismoa. Katabolismo aerobikoa eta anaerobikoa. b) Arnasketa zelularra. Entzimak eta ATP. c) Ariketa fisikoa eta metabolismoa. Giza jardueran metabolismoak duen zeregina balioestea. d) Entrenamendua eta nekea metabolismoarekin erlazionatzea. e) Digestio-sistema eta nutrizioa. Anatomia nozioak. Digestioaren fisiologia. Funtzio horien ondorioak higie-, nutrizio- eta osasun-ohituretan. f) Mantenugaiak eta dietak. Zenbait elikagaien konposizioaren analisia. Dieta motak. Dietak prestatzea. g) Nutrizio-nahasteak. Nahaste mota bakoitza agertzeko gaur egungo gizarte-faktoreak. h) Dietaren garrantzia ariketa fisikoetan. i) Iraitz-sistema. Nozioak. Uraren eta gatzen erregulazioa. j) Ariketen, izerditzearen eta iraitzearen arteko erlazioa.

2. EBALUAZIOA

4. MULTZOA. Bihotz-biriketako sistema

- a) Arnas sistema. Arnasketaren anatomia eta fisiologia. Arnasketaren eta gorputz-mugimenduaren arteko koordinazioa.
- b) Fonazio-aparatua eta fonazioa. Ahots-kordak erabiliz zenbait soinu mota egitea. Fonazioaren eta arnasketaren arteko koordinazioa.
- c) Kantuan eta deklamazioan, arnas sistema eta fonazio-aparatua erabiltzea. Disfonia funtzionalak, ahotsa gaizki erabiltzeagatik.
- d) Fonazio-sistemarentzat eta arnas aparatuentzat osasungarriak diren ohiturak.
- e) Zirkulazio-sistema. Bihotza, arteriak eta zainak. Bihotzaren funtzionamendua.
- f) Bihotz-biriketako aparatuen garrantzia arte-jardunetan. Bihotz-birikak egokitzeko printzipioak, lan fisikoa eskatzen duten arte-jardunetako errendimendua hobetzeko.
- g) Bihotz-biriketako aparatua zaintzearen balioespena. Lanak egitea eta bizi-konstanteak neurtzea; adibidez, pultsua, arnasketa eta tentsio arteriala.

5. MULTZOA. Koordinazio- eta erregulazio-sistemak

- a) Nerbio-sistema eta sistema endokrinoa. Antolaketa orokorra. Sistema horien eta lokomozio-sistemen arteko erlazioa.
- b) Nerbio-sistema. Neurona. Nerbio-organo nagusiak. Nerbio-bulkada. Jarduera fisikoarekin lotutako nerbio-ekintzen nozioak: borondatezkoak eta erreflexuak.
- c) Sistema endokrinoa. Mugimenduan parte hartzen duten hormona nagusiak. Uraren eta gatzen termoregulazioa eta erregulazioa jarduera fisikoan.
- d) Ugaltze-sistema. Emakumeen eta gizonen ugaltze-sistemari buruzko oinarritzko nozioak.
- e) Zenbait sexu-hormona eta haien zeregina hezur- eta muskulu-sistema zaintzeko.

3. EBALUAZIOA

6. MULTZOA. Lokomozio-sistema eta higidura

- a) Lokomozio-sistemaren antolaketa orokorra.
- b) Hezur-sistema. Hezurren morfologia, egitura eta funtzioa. Giza eskeletoa. Arte-jardunean parte hartzen duten hezur nagusiak. Hezurren fisiologia. Artikulazioak.
- c) Muskulu-sistema. Muskuluen morfologia, egitura eta funtzioa. Arte-jardunean parte hartzen duten muskulu nagusiak. Muskuluen fisiologia.
- d) Lokomozioari aplikatutako mekanikako eta zinetikako printzipioak. Muskuluen energia, potentzia, erresistentzia eta malgutasuna. Palanka motak. Giltzaduren higidura motak.
- e) Jarrera eta oreka. Oreka eta arte-jarduneko higidura nagusiak gobernatzen dituzten printzipio biomekanikoak.
- f) Ariketak egiteak lokomozio-sisteman duen eragina.
- g) Jarrera zuzena eta okerra: keinuen errepikapena eta jarrera desegokiak arte-adierazpenetan, lesioen sorburu gisa.

- h) Arte-jardunetan gehien agertzen diren lesioen eta haien prebentzioaren azterketa. Ariketa fisikoen garrantzia.
- i) Gaitasun fisikoak entrenatzearen garrantzia, higiduraren kalitatea hobetzeko.
- j) Jarrera zaintzearen balioespena, osasun-iturria den aldetik.

7. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa

- a) Gorputz-sentsibilizazioa, -pertzepzioa eta -kontzientzia.
- b) Higiduraren oinarri erritmikoak eta melodikoak ezagutzea eta menderatzea.
- c) Espazioa menderatzea eta egituratzea, ahaleginaren oinarrizko ekintzak eta higiduraren kalitateak.
- d) Giza motrizitatea eta norberaren garapena.
- e) Gorputzaren arte-jardunen gizarte-balioa.
- f) Gorputza eta higidura, adierazpen- eta komunikazio-baliabide gisa. Balio estetikoa.
- g) Erritmo- eta adierazpen-jardueren elementu teknikoak.

METODOLOGIA

EDUKIEN ANTOLAKETA

1. MULTZOA: Eduki komunak.
2. MULTZOA: Giza gorputzaren antolaketa.
3. MULTZOA: Energiaren ekarpen- eta erabilera-sistema.
4. MULTZOA: Bihotz-biriketako sistema.
5. MULTZOA: Koordinazio- eta erregulazio-sistemak.
6. MULTZOA: Lokomozio-sistema eta higidura.
7. MULTZOA: Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa

JARDUERA MOTAK

Hasierako fasean:

- Egoera erreal edo simulatuetan arazo-egoerak planteatzea horiei irtenbidea emateko.
- Ikaskuntzaren helburuak hitzez esplizitatzea.

Garapen fasean:

- Ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak.
- Ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak.

Aplikazio eta komunikazio fasean:

- Zuzenketak, burututako prozesuaren eta esperotako emaitzaren arteko aldeez jabetzen laguntzeko.

- Azterketak, ebaluazio-irizpideak barneratzen laguntzeko.
- Akatsak kudeatzen eta haiek hobetzeko eta gainditzeko ekintzak.

BALIABIDEAK

- Testu libururik ez da erabiliko. Horren ordez apuntea, aurkezpenak, simulazioa, dokumentalak etab erabiliko dira, hau dena IKT baliabideen laguntzarekin.

- IKT baliabideak:

Alexia Classroom izango da ikasleek baliabide gehigarri moduan erabiliko duten IKT baliabidea. Bertatik informazio gehigarria, bideo eta dokumentalak ikusi ahalko dituzte. Ikasgelan emango zaizkien baliabide guztiak bertan aurkituko dituzte esekita.

Eskututako lanak Alexia Classroom plataformara igo beharko dituzte, beti ere PDF formatuan. Eskuz ere egin ditzakete entregatzeko lanak, baina entrega beti AlexiaClassroom plataforma bitartez egingo da horrela mugikorra edo eskanerra erabili beharko dute PDF formatura pasatzeko.

Gaien informazio gehigarri modura bideo lagungarriak (adibidez youtube erabiliz) eta dokumentalak erabiliko dira (adibidez, dokumania, rtve.es, eitb.com etb.)

Ikasleak gelan egin beharreko lanen aurkezpena, power point edo prezi programarekin egin beharko dituzte.

Pandemia egoeran Meet eta G-suite komunikazio baliabideak erabiliko dira, Alexia Classroomen txertatuta, saioak jarraitu ahal izateko etxetik eta material guztia eskura izateko.

TADEKATZEAK

Orokorrean lanak taldekatuta egingo dituzte.

ESPAZIO-DEBOREN ANTOLAKETA

Ikas-gela izango da elkargune nagusia, non, irakasleak ohiko klase magistralak emango dituen. Ikas-gela erabiliko da ere talde lanak burutzeko.

Gaia	Multzoa	Aste kopurua	Ebaluazioa
Giza gorputzaren antolaketa	II. MULTZOA	14	1.Ebaluazioa
Energiaren ekarpen- eta erabilera-sistema	III. MULTZOA	14	
Bihotz-biriketako sistema	IV. MULTZOA	14	2. Ebaluazioa
Koordinazio- eta erregulazio-sistemak	V. MULTZOA	14	

Lokomozio-sistema eta higidura	VI. MULTZOA	14	3.Ebaluazioa
Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa	VII. MULTZOA	14	

IRAKASLEEN EGINKIZUNA

- Galdera edo bestelako baliabideen bidez (artikuluak, bideoak, etab.) ikasleengan interesa piztuko du eta haien aurre-ezagutzak jasoko ditu.
- Gaiak azalduko ditu, ikasle guztiek edukiak uler ditzaten. Horretarako, beste hainbat tresna erabiliko ditu (power point-a, adibidez).
- Edukiak sakontzeko eta ikasitakoa errealitatearekin lotzeko jarduerak eta ikertze eta aplikatze ekintzak proposatuko ditu.
- Ikasleei agindutako ariketak eta problemak talde osoaren aurrean zuzenduko ditu.
- Talde dinamika egokia egoteaz arduratuko da, non, ikaslea eroso eta zaindua sentitzea izango den helburu nagusia.

IKASLEEN EGINKIZUNA

- Indibidualki zein taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikasteko gaitasuna garatzea, jarduerak egitean eta edukiak barneratzeko orduan teknika egokiak erabiltzeko.
- Independentzia eta autonomia propioa garatzea.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitzean azterketak egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko. Ebaluazio partzial bakoitzean denbora-epe horretan egindako talde-lan praktikoak eta banakako lanak baloratuko dira. Klaseetan egindako aurkezpenak baloratuko dira. Laborategian nahiz ikasgelan egindako lan praktikoak, eta egindako txostenak ere baloratuko dira.	Ebaluazio partzial bakoitzean egindako azterketen nota eta lan praktikoetako nota kontuan hartuko da. Kasu bakoitzean, irakasleak adieraziko du kalifikazio osoaren zenbateko ehunekoa dagokion ebaluazioan landutako atal bakoitzari Egin beharreko azterketa eta entregatu beharreko lan eta txostenetan gutxienez 4 bat atera beharko da ebaluazioaren notaren batz bestekoa egiteko. Bataz bestekoa egiteko, entregatu beharreko lanak aurkeztu ezean, ezingo da notarik jarri. Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da bataz bestekoa egiterakoan.
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK	
Ebaluazio bakoitzaren ondoren errekupeazio-azterketa bat izango da. Ikasturte bukaeran aurretik gaititu gabeko zatiak gaititzeko aukera emango zaie ikasleei. Kurtsoko nota globala igotzeko aukera emango zaie ikasleei kurtso osoan landutako gaiet buruz egindako lan orokor baten bitartez.	